



ARGIA



NAFAR PIRINIOETAN LAN EGIN ETA BIZI NAHI DUEN BELAUNALDIA

ADRIAN ODRIOZOLA DOPINAZ ETA MANIPULAZIO GENETIKOAZ

GERARDO MUNGIA, "KARMEN ETXALARKOA" PASTORALAREN EGILEA

XABIER OLARRA: "ITZULPENGINTZAN TRAZIOA EGIN BEHAR DA, BAINA ONGI"





HAUTATZEN DAKITENENTZAT

KRONIKAK, ANALISIAK, JOERAK, INFOGRAFIK...

Eskura ezazu!

☎ 943 371 545 • www.argia.eus/denda • denda@argia.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: DSEI, gerraren azoka Londresen

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 18 Eneko Gorri
- 19 Xabier Mendiguren Miren Artetxe
- 20 Irati Elorrieta
- 21 Fatima Aatar



Urriaren 1eko autodeterminazio erreferenduari begira egingo da aurtengo Diada eguna (ARGAZKIA: XAVIER DENGRA-CC BY SA)

- 35 DENBORAREN MAKINA
- 36 BIZI BARATZEA
- 38 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ADRIAN ODRIOSOLA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Gerardo Mungia: "Euskarak erabat estekaturik nauka eta pastoralak ene pasioa da" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Nafar Pirinioak berpiztera doan belaunaldia / Ane Eslava Serrano
- 27 | Irati Salsamendi Lozano: "Elite batek kontrolatzen ditu moda-gustuak" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 28 | Erbesteratzearen ondorioak: Arrasto partekatuak / Mikel Garcia Idiakez
- 30 | Maialen Urbietak, eleaniztasuna aztertzen / Onintza Irureta Azkune
- 32 | Diadatik Kataluniako Errepublikari begira / Xabier Letona
- 40 | Xabier Olarra, itzultzailea: "Irakurleak esan dezake liburua txarra dela, baina hori ez da zure kulpak" / Mikel Asurmendi
- 44 | Oki Moki: "Asmo handirik gabeko musika zintzoa da gurea" / Kepa Matxain
- 47 | Manuel Bartualen txio hariak fikzio biralaren aukerak erakusten ditu / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BEREAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaia Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibau Eizaguirre.

Erredakzioa: Aier Lopez, Estibau Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzak harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetzak tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

Glifosatoa, europar baratzeetatik desagertzeaz?

Europar Batasunak urtea amaitu baino lehen erabaki behar du glifosatoa –munduan gehien saltzen den herbizida– erabiltzeko baimena luzatuko duen ala ez. Monsanto 70eko hamarkadan merkaturatutako substantzia 40 enpresak baino gehiagok saltzen dute gaur egun; “segur aski minbizi-eragilea” dela esan zuen Minbizi Ikertzeko Nazioarteko Agentziak 2015ean. Bitartean, 1.300.000 europarrek sinatu dute herbizidaren baimena berriztearen aurka –irudian sinadurak jasotzeko Bruselan egin duten ekimenetako bat–. Bide beretik joko du Frantziako Gobernuak: glifosatoaren kontra bozkatuko duela jakinarazi berri du Nicolas Hulot Trantsizio Ekologikorako ministroak.

Argazkia: Geert Vanden Wijngaert (Avaaz) · Testua: Unai Brea





MONSANTO





“Donostian etxebizitza turistikoaren araudia onartu dugu. Alde Zaharra eta Portua gune saturatuak izango dira. Hiri oreka bilatzea da helburua”

@EnekoGoia
Donostiako alkatea



“Ez dago hiriko 1.500 pisu turistiko ilegalak ixteko plangintzarik eta arazoa Alde Zaharretik hiri osora zabalduko da, pisu turistikoak lehenengo solairuan izateko legea kendu baitu Udalgobernuak”

EH Bildu Donostia



“Lehenengo solairuan ez daudelako orain ilegalak diren pisu turistikoak legal bihurtuko direla, hori iruditzen zaigu larriena”

Irabazi Donostia



EL CONFIDENCIAL

Euskal Herriko bost enpresa Saudi Arabian Espainiako erregearekin

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Felipe VI.ak urtarrilean Riaden bilera egin zuen Arabiako eta Espainiako Estatuko 70 enpresekin eta Saudi Arabiako errege Salman Bin Abdulaziz Al-Saud-ekin. Espainiako Estatuko 22 enpresak parte hartu zuten bertan, tartean Euskal Herriko bostek, CAF, IDOM, Mondragon, OHL eta Sener-ek hain zuzen. *La Mareak* urtarrilaren 16an argitaratu zuen enpresen zerrenda.

Gerra negozio bidaia ere izan zen

Erregeak eginiko bidaia honen alde polemikoenetakoa izan zen bitartekari lanak egin zituela Navantiak bost korbata militar saldu ziezazkion Saudi Arabiari, eta hauen bidez Yemenen zibilak hiltzen jarraituko zuela,

Amnistia Internazionalak eta beste GKE batzuek salatu dutenez.

Mondragon Unibertsitatearen erantzuna

ARGIAk zabalduko albiste honi buruz galdetu zion *Mondraberrrik* Mondragoni eta he-dabideak adierazi du talde enpresarialak informazioa baieztatu diola: “Saudi Arabiako eta Espainiako erregimenen buruekin egin-dako bilkuran parte hartu zuen MEI-k, Mondragon Unibertsitatearekin lotuta dagoen sozietateak. MEI programaren zuzendari Marijo Pagaldaik berak baieztatu du informazioa, korporazioarentzat ‘bilera protokolario hutsa’ izan zela argudiatuz”. 2013an Saudi Arabiako Gobernuaren kontzesio bat irabazi zuen MEIk, bertako lau hezkuntza zentro kudeatzeko bost urteko epean (2018 an agortuko da).

“Elkarriketaren garaia heltzen denean gauza asko konponduko direla uste dut”

OIHANA ETXEBARRIETA, HONDARRIBIKO JAIZKIBEL KONPAINIAKO KAPITAINA

“Gero eta jende gehiago dago euren aurrean plastiko beltzak jartzea onartzen ez duena, gu ikustera dato-rrena. Aldaketak ematen ari dira (...) Ez dugu alarde paraleloa sortu nahi, herri guztiak elkarrekin festa egin dezala nahi dugu, eta horretarako Jaizkibel besteekin batera ibiliko den egunaren bila goaz (...) Ez dugu elkarriketarako aukerarik izan eta uste dut garai hori heltzen denean gauza asko konponduko dire-la. Jendeak, hitz egiten hasten denean, elkar ulertzeko uneak bilatzen ditu”. **ARGIA.EUS (2017-09-01)**



FAUNA PUBLIKOA

**“Lehentasunezko zein gai
aukeratu du oposizioak gaur
Espainiako Kongresuaren
jarduerari berrekiteko?
Katalunia? Islam erradikala?
Ez, betikoa”**

Javier Maroto, PPko diputatua Arabatik (Twitter)

Experts in mixing




Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Telefonoak jo zion. Madrildik zen, etortzeko, probintziako liga utzi eta Bernabeura saltatzeko unea zela. “Azkenik”, atera zitzaion deia moztu bezain laster eta tenkatu zuen aurpegia imintzio batean, nahastu zitekeena irribarre batekin. Urtebete zeraman Gasteizko Udaleko lokatzetan alkatea beste bat zela sinetsi ezinda; eta pasako zuen lege-gintzaldi osoa ere, zaina badu horretarako, badaki lehortearen den, badaki itxaroten. Baina gauza handiagoetarako egina zegoela esaten zion Marotok bere buruari goizero, ispilu aurrean ziurtatzen zuelarik aurpegiko ile bakoitza perfektu zeukala. “Hik diputatu izan behar huke”, xuxurlatzen zion ispiluak, eta gustatzen zitzaion hitz hori, diputatu; gustatzen zitzaion ispiluko irudia; gustatzen zen.

Ekipaje arina zeraman kapitalerako trenean. Ez zuen ahaztu ordea Gasteizko garaipenen talismana: larrialdi politikoetarako manual bat, zeinak dioen boto-emaielen hemorragia daukazunean, momentua iritsi dela formula korrienteak albo batera uzteko, eskuak sartzeko komuneko zuloan, ateratzeko gizartea zatitzen duen gai bat eta eraikitzeko, materia organiko horrekin, merkatuan desberdinduko zaituen kanpaina. Agenda publikoaren manipulazioaz masterra egin zuen orduan eta orain, Kongresuko lehoien artean, doktoratu egin nahi du, PPren finantzazio ilegala –hori da “betiko” gaia– medioetatik ateratzeko bere *expertisea* eskainiz.

Txioak burrunba egin du, mezuari erantsitako irudian bandera *indepea* eta jihadistena elkarren pare jarri dituelako. Baina helburua lortu du: dei nazatela miserable, baina hitz egin dezatela nitaz. Beste politikari askok haragia duten lekuan Marotok kartilagoa dauka. Eta Madrilen ere hasi zaio nabaritzen anbizioa. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ADUR

ANALISIA



Hendaiaiko Itsas Bulebarreko Kasinoa, mauri estilokoa.

Ergela irakurriko duena



Mikel Asurmendi

@masurmendi

Oporraldiko azken egunen atzerako kontaketa egitea eskatu zidan buruak nonbait, hartara, ARGIAko egutegiari orri berri bat kendu nion agorrileko hamazazpian. Buruketa hau egitea proposatzen zuen: “Euskal Herriko Lurralde osoa hartzen duen administrazioari nola deitzen zaio?”.

Oporretan izanik ere, smartphonen txio malapartatu batek hondartzara joatera behartu ninduen. “Hau malura! Udan, Hendaian eta autoa hartu behar”. Ustekabeko txioak egutegiko galdera-erantzunaren peskizan hausnartzea galarrazi zidan une batez.

Bidez bidez, auto-ilaran, irratia piztu nuen. Kataluniatik zetorren albiste. “2017ko agorrilaren 17, jihadismoaren egutegi unibertsaleko beste egun bat izanen da, beltzez seinalatua” pentsatu nuen artega. Hendaiaiko Itsas Bulebarra Bartzelonako Rambla begitandu zitzaidan.

17 osteguna. Autoaren aginte-mahaian neraman orria. Panorama honetan estreinakoz idatziko nuenaz itaundu zidan buruak: “Kataluniaz idatziko al duzu? Euskal Herriaz? Euskal Herriko Lurralde osoko administra-

zioaz?”. Halakorik ba ote? Katalunian bai, baina gurean?

Ipar Euskal Herriari berezko instituzioa ekarriko omen dion Euskal Elkargoaz buruketa-n hasia nuen ordurako, Iparraldetik hasi ere. Hendaia Iparraldean kokatzea gero eta zailagoa dela jakinda ere: “Euskal Elkargoa ukazio baten ondorengo emaitza da. Ez da Batera plataformaren Lurralde Elkargoa aldarrikapena. Batzuek ‘nahi genuena lortu dugu’ erran dute, beste batzuek, aldiz, ‘ez, ez dugu lortu nahi genuena’. 2020ko herri bozetan sendotu beharko da proiektua, hots, instituzio horretako batzarra herritarrek zuzenean edota sufragio unibertsalez aukeratzean. Lurraldea definitzea, hor dago koska. Horrela egin ezean, jai dauka Iparraldeak”.

Autoa aparkatu eta egutegiko buruketaren erantzuna begiratu nuen. “Deitu, nahi den bezala deitzen ahal zaio, baina halakorik ez da oraindik existitzen”. Une berean, mutiko-neska nerabe bi albo-alboko paretan idazten ari ziren, ene harridurarako, smartphoneak beharrean errotilagailuak zeramatzaten eskuetan.

Kuriositateak idatzia irakurtzera hurreratu ninduen: “*Tonto el que lo lea*”.

EKONOMIAREN TALAIAN

La Navaletik harago



Juan Mari Arregi

La Navalek ordainketak “etete” egindako iragarpenak, euskal industriako enpresa txiki eta ertainak dauden egoera larriaren ikuspegi orokorra izatea zaildu dezake, Sestaoko ontziolaren tamaina ekonomiko, finantzario eta laboral handia dela-eta. La Navalen zuzenean eta zeharka lan egiten duten 1.500 beharginen protestek ere, fokua puntu bakarrean izatea ekar dezakete. Lantalde horrek badu mobilizazio gaitasuna eta nabaritutako dugu ziur. Beste langile batzuek egoera bera bizi dute, baina ezin haien aldarria kalera eraman. Ez dugu ahaztu behar EAEn krisian dauden 30 enpresatan 6.000 lagun ari direla lanean, eta horri gehitu behar zaie beste hainbat enpresa txikitik dabilzanak, lantalde txikiak dituzten hornitzaile autonomoak.

Urkullu lehendakariak galdetu du (ez ote daki?) nola gertatu daitekeen La Navalekoa eskaerak dituenean –lau ontzi ari da eraikitzen–. Erantzuna bistakoa da: halako egoerak sortzen dira finantziarioak huts egiten duelako, berehalako etekinen bila dabilzan bankuek egiten dute huts. Eta bankuak, orain, Eusko Jaurlaritzari xantaia egiten ari dira, honek ontziolaren zorrak ordainduko dituela bermatu dezan. Horrela baino ez diote finantziarioari berrekingo. Banku publiko bat behar dugu, helburu izango duena euskal industria indartzea eta egungo lanpostuei eustea, hori baita gure gazteraren etorkizuna –gazteen artean langabezia tasa %50ekoa da–, eta hor egon behar luke Kutxabanke.

Gaizki egingo dugu orain fokua La Navalen baizik ez badugu jartzen bere enpleguak mugitu direlako, eta aldiz ahazten baditugu beste enpresa txiki eta ertainak. Arduradun politikoak derrigortuta daude La Navaletik harago dagoen egoerari erreparatzera.



UNAI BREA

Hormigoian kateatuta

GETXO. Ibarbengoako geltokiaren ondoan aparkaleku erraldoia eraikitzeko egitasmoa salatzeko ekintza egin zuen Tosu Betirako asanbladak irailaren 1ean; obrak eragozteko erresistentzia kanpaldia egiten ari dira. Asanbladako kide bat Algortako kale nagusietako baten errepidean jesarri zen, besoa hormigoizko bloke handi baten barruan kateatuta. Handik hiru ordura askatu zuten suhiltzaileek.

Euskaldunak aktibatzeke gida atera du Bagera elkarteak

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Donostiako Egia auzoan laborategiko proba egin zutela esan genezake. Euskaldunek euskarari eusteko ekimena antolatu zuten auzoan bertan. Arrakasta izan zuen eta beste hainbatek proba hura kopiatzea erabaki zuen.

Bilduma

Egia Euskaraz-en ondoren, antzeko beste hainbat ekimen etorri ziren eta Bagera elkarteak horietako hamar esperientzia nola egin ziren zehatz-mehatz jaso du. Tartean dira Hernanikoa, Aguraingoa eta Lasarte-Oriakoa.

Gida

Bildumaz gain gida osatu dute, antzeko ekimenen bat egin nahi duenak nondik jo jakin dezan, eta batik bat edozein kolektibok sinetsi dezan hizkuntza ohituretan eragiteko ekimen interesgarriak egin daitezkeela.

Sarean eskuragarri

Lanaren egilea Idoia Trenor Zulaika Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteko kidea da eta argitaratzailea Gipuzkoako Foru Aldundia. Bilduma eta gida sarean daude eskuratzeko moduan: www.bagera.eus

ABERASTASUNA



3

izen ageri dira Euskal Herriari lotuta, 2017ko munduko aberatsenen artean: Juan-Miguel Villar Mir (OHL), Daniel Francisco Maté Badenes (Suitzan bizidun donostiarra), eta Jose Maria Aristrain (Arcelor Mittal).

2,9

mila milioi dolar ditu Villarrek, 2,5 mila milioi Maték, eta 1,1 mila milioi Aristrainek.



IZAR IKASTOLARA

Intxaurrondoko ikastolan matrikulatu dute Sara Majarenasen alaba, baina bai Sara Majarenasek bai Izarrek Acobendasen (Madril) jarraitzen dute, harrera-zentroan. "Izar ikastolara" ozen aldarrikatu dute ehunka lagunek Donostian.



GAROÑAN KUTSADURA

Kutsadura azterna berriak azaldu dira Garoñan. Orain arte inon jasota ez zegoen isurketa baten arrastoa antzeman dute. Maiatzean beriz, su-itzalgailu bat erabili behar izan zuten sugarrak amatzeko.



MUGIKORTASUNA

Hiri-mugikortasunerako plan berria jarri du abian Iruñeak. Garraio publikoa indartuko dute erdigunean eta zabalgunetako eta Alde Zaharreko 12 kale baino gehiago oinezkoentzat egingo dituzte. Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea eta bizikleta bultzatzea ere badute helburu.

DSEI azoka Londresen: gerra hemen hasten da, hemen gelditu dezagun



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

DSEI Defence and Security Equipment International deitzen da munduko arma ferietan handiena eta Londresko *ExCeL* erakustazoka erraldoian irailaren 12tik 15era burutuko da, jendeak hiltzeko teknologiarik sofistikatuenean inguruan tratatuak egin ditzaten mundu osotik iritsitako ekoizle, erosle, bitartekari, agintari eta militarrek. Atarian zain edukiko dituzte gerraren erregaia den arma trafikoa gelditu nahian hurbildutako ekintzaileak.



Zer itxura ote dauka barrutik munduko arma azoka handienak? ARGIAren irakurle horrek nahita ere ezingo duzu barrutik ikusi, gonbidapen berezirik ez duen jende arruntak ez daukalako sarbiderik, baina atariraino hurbilduz gero hegazkin sofistikatu bat aurkituko duzu, Ingalaterrako udazkeneko eguzkitan dir-dir. Gerrako ontziak ere topatuko dituzu Royal Victoria Dock kaian amarraturik, arma-saltoki erraldoira hurbilduko diren 34.000 saltzaile eta erosleek ilunabarretan beren tratatuak koktelez ospatu ditzaten.

STAF Stop The Arms Fair (Gelditu Armen Feria) mugimenduak azaltzen duenez, segurtasun hesien gainetik barneratzea lortuko bazenu, zeure begiz ikusiko zenituzke bertan saltzen diren dron, tanke, fusil, helikoptero, auto armatu, gas negar-eragile, bonba eta misilak. Balak mulko dotoretan erakusten dira eta diktadore kapritxoso batek aurki dezake beretzako pistola urrez doratua. Hemen diktadoreak Britainia Handiko funtzionario eta militarrek babestuta paseatzen dira.

Militarrek beren ekipamenduak erakusten dituzte. Sala batek eduki dezake bonbardatutako kale baten itxura. Harantzago saia zaitezke blindatu batera igotzen edo kainoi baten atzean eseritzen, berriketa lasaien murmurioak inguratzen zaituela.

Itxura lasai hori emanagatik, ordea, DSEI ez da bilkura jator bat, diote STAFeko ekintzaileek. Israelek bere pa-

bilioian erakusten duen ekipamendua “guduan frogatua” dela argudiatzean, benetan adierazten duena da palestinarren larruazalean testatua daukala. Gerrako ontzi ikusgarrietan milioika libra xahutu dira diru publikotik. Sarrerako aireplano distiratsuaren bikia aurkienezake gaur bertan Yemenen eskolak eta ospitaleak bonbardatzen Saudi Arabiaren ikurrez apaindua.

Bi urtean behin irekitzen ditu ateak DSEI munduko arma azoka handienak. Lehen edizioa 2001eko irailaren 11n abiatu zen... justu islamistek New Yorkeko Dorre Bikietan hegazkinak zapartarazi zituzten egun berean. Londresko ferian zegoen zenbait lekukok aipatu zuen zein haluzinagarria zen atentatuaren irudiak zuzenean ikustea armarik modernoenez betetako sala haietatik.

Hasieratik protestak pizturik, 2003ko azokarako antolatzaileek eskatu zuten ez ekartzeko airean bonba txiki ugari tan sakabanatzen diren luku bonbarik, hain zuzen Erresuma Batuan sekulako polemika zegoelako batik bat zibilak hiltzen dituzten munizio horien inguruan. Zenbait hedabidek erakutsi zuen, ordea, stand bat baino gehiagotan zeudela salgai Irakeko gerrak ospetsu egindako bonba hilgarriok.

2007an erakustazoka kokatuta da goen Newhameko udalerririk eskatu zuen bertan behera uztea, ez dirudielako morala irailaren 11rekin batera burutzea arma feria erraldoia non eta biztanleen erdia gerran dauden herrial-

deetatik ihesi etorria den auzo batean. Gerraren kontrako mugimenduaren ekintzak ere ugarituz joan ziren urte horietan, baina ez diote azokaren arrakasta lausotu gerraren industriari.

Ontsa hiltzeko gailuak

Clarion Events konpainiak antolatzen du azoka. 50 herrialdetan antolatzen dituen ferien artean gero eta gehiago dira segurtasun gaiekin zerikusia dutenak: Borderpol konferentzia mugen segurtasunaz, Bahrainen erakustaldi militarra, gerra elektronikoaz Lausanan...

2017ko DSEIren antolatzaileek beren webgunean iragarri dutenez, bost ataletan banatuko dira standak bezala bilkura eta seminarioak: Aireko gerra, Lurrekoa, Itsasokoa, Segurtasuna eta *Joint* deitua, gerrako atal askoren saski-naskia (komunikazioak, gerra elektronikoa, logistika, gerrako medikuntza...). 34.000 bisitari kualifikatu espero dituzte, jakinda duela bi urtekoan 30.000 etorri zitzaizkiela, “horien artean Defentsa ministroak, nazioarteko militar eta indar armatuak, industriako protagonista nagusiak eta konpainia pribatuak”. 2015eko edizioan 42 pabilioi zenbatu ziren, 84 herrialdeetatik iritsitako 2.900 VIP pertsonaia, 108 herrialdeetako bisitariak...

Webean ondo sailkaturik ageri dira saltzaileak, denen buru mundu armen komertzioaren *Top Ten* multzoa: Lockheed Martin (denetan txapelduna salmentan), Boeing, BAE Systems,



Arma Komertzioaren Kontrako Kanpaina (CAAT ingelesezko sigletan) elkarte bakezaleak zabalduko irudia da, 2015koa. Ezkerrean ageri den ekintzaileak Londresko DSEI arma azokara datorren partaideetako bat lokalizatu du aireportuan ("DSEIra zoaz? Lagunduko al dizut?" izeneko afixak erakutsita engainatuz) eta lotsaizun uzten du "Arma trafikatzaila" dioen tixertarekin: Royal Victoria Dockerraino karrikan bezala metroan aurkituko dituzten herritar guztiek jakingo dute negozioren berri.

Raytheon, Northrop Grumman, General Dynamics, Airbus, United Technologies, Leonardo eta L2 Technologies. Horien ondoan izango dira, herritarrok gerra-ekin lotzen ez ditugun zientoka konpainia handi, Fujitsu bezala Canon... Ezin konta ahala zerbitzu eta produktu eskainiko dituzte puntako bertsio berrietan, izan eskuko arma, misil, aireplano, tanke, gerraontzi, gailu elektroniko edo jendeak kontrolatzeko sistema.

"Hemen salduko armak dira -diote Stop The Arms Fair kanpainako ekintzaileek- mundu osoko militar, polizia eta mugazainek eragiten dituzten heriotza, suntsiketa eta bidegabekerien erregaia. Hemen hasten da gerra, eta hemen egin dezakegu lan hura gertatzeko".

Ekintza sail zabala antolatu dute abuztu amaieratik hasita Londresen. Irailaren 4tik 11ra arte *Occupy DSEI*

kanpalekua burutu behar zuten ferilekuaren inguruetan, egunero osagai bat nabarmenduz. 4ean "Ez armatu gehiago Israel" eguna. 5ean "Ez sinetsi gerran" (*No Faith in War*), hainbat erlijio eta sinismen duten ekintzaileen otoitz, kanta eta bestelako ekintza baketsuz. 6an arma nuklearren kontrakoa, Trident misil atomikoak zaharberritzea salatzeke, eta erakustazokara ekipamendu militarrrak sartzea eragozteko ahalegina. Egun berean, "Armen ordezkariak", heriotzaren ordezkariak lanpostuak aldarrikatuz. 7an "Mugitzeko askatasuna jendearentzako, ez armentzako" etorkin, feminista eta queer jendeak antolatuko duena. 8an hitzaldiak erakustazokaren atarian, intelektual eta akademikoek emanak.

Irailaren 9a izendatu dute armen trafikoaren kontrako egun zentral, DSEI

atarian klase guztietako musika, zala-parta, arte erakusketa eta inauteri builatsu antolatuta. 10ean "Gerra hemen geratu behar da", herritarrek feriaz eta armen salerosketaz informatzeko eguna. 11n gaualdi isila munduko gerren biktimekiko elkartasunez, goizean lore eskaintza gerraontziak salgai dauden kaiko uretan.

2015eko irailean armak erosi edo saltzera zetozen milaka militar eta exekutiboetako batzuek harrera komite berezia aurkitu zuten aireportuan bertan: itxuraz azokarainoko bidaia erraztera etorritako laguntzaileak benetan gerraren kontrako ekintzaileak ziren eta beren pabilioietarainoko oinez bezala metroan txango osoan soportatu behar izan zituzten hauen salaketak. Emaizta interneten dago bideoz: "*Meeting and greeting arms dealers #stopdsei*". ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Gerardo Mungia, pastoral egilea

«Euskarak erabat estekaturik nauka eta pastoralara ene pasioa da»

Lanean dabil buru-belarri Gerardo Mungia. Irailaren 16an, Etxalarren, *Karmen Etxalarkoa* pastoralara estreinatuko dute, eta bera da egilea. Luze-zabal azaldu digu zer prestatu duten ehundik gora lagunen artean. Beste zer kontaturik ere badu iruindarrak, euskara nola ikasi eta aberastu duen esan digu. 1980ko hamarkadan Iruñean heroinak hamarnaka gazte nola eraman zituen ere gogoratu du.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zergatik esaten dizute "Pintxe"?

Nafarroako autobidearen obretan hasi nintzen lanean gaztetxo nintzela, artean peoia izateko adina ere ez nuela. Hori dela eta paratu zidaten "Pintxe" izena.

Gaztetatik lanean, beraz?

Bai. 14 urterekin hasi nintzen arropa biltegi ezagun batean: "Numancia, la casa de la elegancia". Gero, besteak beste, Burundesako autobusetan kobratzaile aritu nintzen, eraikuntzan hasi arte. Gerora ere bertze gauza aunitz egin izan ditut, ardo ekologikoa, esate baterako.

Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?

Ene gazte denboran euskara beti izan zen hor modu batez edo bestez, gure etxeko fundazioan ez izan arren. Aitatxi eta amatxi iruindarrak ziren, eta haiek bai euskaldunak zirela, baina aitatxi ez nuen kasik ezagutzeko astirik izan. Gainera, etxean gauza askoz ez zen hitz egiten, besteak beste euskarari buruz. Aitatxi eta amatxi koadernatzaileak ziren, Arantzadi enpresa ezagunean egiten

zuten lan, eta horregatik gure etxean beti liburu asko izan ditugu eskura. Txikitatik oso gogoko izan dut irakurtzea. Enetako bi idazle oso garrantzitsuak izan dira: Sarrionandia eta Itxaro Borda. Haien zale amorratua naiz eta beraiekin izugarri ikasi dut. Hizkuntza nola maneiatzen duten xoratzen nau. Haiek euskararen ikasketeko esperantza eman zidaten.

Gazte garaian mendira maiz joaten nintzen, gure belaunaldiko asko bezala, eta hor barrena ibilki zarelarik ohartzen zara mendi, ibar eta herri askoren izenak euskarazkoak direla. Iruñean ere berdin. Euskara beti hurbil izan dut.

Bestalde, trantsizio garaian Euskal Herri euskalduna eraikitzeke proiektuak indar handia zuen. Herri Batasuneko militantea izan naiz, Amnistia-aren Aldeko Batzordeko kidea eta LABeko afiliatua naiz. Politikak markatu gintuen eta ni horregatik pozten naiz, gure belaunaldiko askotxok ideia politikoengatik atxiloaldiak ezagutu ditugun arren. Nik garbi daukat langilea naizela. Langiletasun hori da ni identifikatzen nauena.

Euskaltegia eta Pirinioetako unibertsitatean ikasi duzula entzun dizut noiz-bait...

Bai. HABEn hasi nintzen ikasten, Hondarribiko barnetegi batean. Han eman nituen lau edo bost hilabete haietan oinarri sendoa finkatzea lortu nuen. Gero

Gerardo Mungia "Pintxe"

Iruñea, 1957

Igeltseroa, idazlea, musika zalea eta pastoralen zale amorratua. *Harat honat, jonki baten trajeria* kopla liburua plazaratu zuen Txalaparta argitaletxearekin 2015ean. La Polla Records, Kortatu eta Cicatriz taldeen managerra izan zen 1980ko hamarkadan. Hegoaldean molde klasikoan eginiko lehen pastoralaren sortzailea da, *Karmen Etxalarkoa*. Beste bi pastoral idatziak ditu gaur egungo gai sozialei buruz.



Iruñean Hizkuntza Eskolan izan nintzen urte bat Mikel Tabernarekin eta sekulakoa ikasi nuen. Batzuk eta besteak, garai hartako irakasleak benetako euskararen aldeko militanteak ziren, ene iduriz. Haiek ematen ziguten ilusio hura atxiki nuen nik.

Gerora lanean aunitzetan egokitu zait Lapurdi aldera, Sakana, Baztan, Nafarroa Beherea, Zuberoara joatea... Piriñoetako bi aldeetan ikasi dut dakidan euskara. Lana bukatu ondoren koaderno hartu eta egun berean entzun edo ikasitakoa apuntatzen nuen. Iruñean guti mintzatzen naiz ene lagunek ez dakitelako. Euskaltzaleak dira, baina ez dute ikasi. Inguru hurbilean norekin euskaraz hitz egin ez izateak beste aukerak atxikitzen behartu nau.

Nolatan izan zinen rock manager?

Rock and rolla, kanta tradizionala eta bertsoak izan ditut beti gustuko. 80ko hamarkadan Rock Radical Vasco delakoa sortu zelarik, Iruñeko lagun batek gomiatu ninduen berarekin batera manager gisa ibiltzera. Eta nik baietz esan nuen, zergatik ez? Ez nuen sobera pentsatu. Horrela ezagutu nituen La Polla Records taldekoak, baita Kortatu eta Cicatrizekoak ere. Bizpahiru urte horietan bi kanpaina berezi izan ziren: "Martxa eta borroka" eta NATOren kontrakoa. Lemoizen aurkako mobilizazioak ere ez ziren gutxi izan. Amnistiaren Aldeko Batzordeko militantea nintzen eta militantzia lan mota hain desberdin batekin uztartu ahal izatea hagitz interesgarria iduritu zitzaidan. Hiruki bat osatu genuen musika, presoen aldeko borroka eta politikarekin. Oso garai bizia zen. Gaztetxeak sortzen ari ziren nonahi eta astero kontzertu asko egiten ziren. La Polla Recordsekin, Euskal Herrian behinik behin, mila pertsonatik gora elkartzen ziren kontzertu bakoitzean. Horitik behera ez dut uste ezagutu dudarik. Espainia alderat ere joaten ginen, baita Katalunia alderat ere. Alemanian izan ginen, eta Italian. Benetan urte hagitz bizi eta emankorrak izan ziren. Garai aparta izan zen.

Harat honat, jonki baten trajeria liburua egiteko ideia nola sortu zitzaizun?

Zerbait erabat pertsonala izan zen. Hemen Iruñean, hainbat arlotan zer gertatu zitzaidan adierazi nahi nuen bertsoen bidez. Narrazio bat da. Bertsotan egina, bai-



na narrazioa. Drogaren erruz galdu ditudan adiskideen aipamen berezia egiteko gogoia nuen eta lortu nuela uste dut. Barnean nituen sentimenduak kanporatzeko beharra nuen. Enetako balio handiko lana da eta aldi berean saiakera bat, idazketan nola moldatzen nintzen ikusteko.

Eskola frankistara joaten hasi ginen garaia da hastapena, eta bukaera aldiz, 80ko hamarkadaren amaiera, orduan hil zitzaizkidalako adiskide eta ezagun gehienak. Berdin emazte ala gizonkiak.

Drogak asko sufriarazi dizu?

Bai. Batez ere 80ko hamarkada hartan. Hemen, Iruñeko Alde Zaharrean, dozenaka eta dozenaka gazte hil ziren. Bistan zen batez ere heroinak zer eragin izan zuen. Ez naiz soziologoa baina Iruñeko Alde Zaharrean 40 gaztetik gora hil ziren. Kalkulu xume bat eginez Iruñean 300 gazte erraz hil zirela esan genezake. Euskal Herrian lasaiki mintzatu ahal gara 3.000-4.000 gazte hil zirela 10-15 urteko tartean.

Zu ere haren menpe erori zinen?

Ez. Ni ez. Drogak eta alkohola kontsumitu ditut, jende askok bezala, baina menpean erori gabe tragedia hori oso hurbiletik ikusi eta bizi nuelako, hain zuzen ere.

Hala eta guztiz ere ni ez naiz drogen aurkakoa. Drogak hor dira eta norberak erabakitzen du zer egin. Hautu pertsonala da. Bortxaz ez du nehork eginen. Gero hortik ezin ateratzea beste kontu bat da, baina norberak nahi duena egin dezala.

Zure droga orain euskara da?

Bai, hala da. Gaur egun erabat estekaturik nauka eta pastoralara ene pasioa da.

Nola maitemindu zinen pastorekin?

Zuberoan, Pagolan, ikusi nuen pastoral bat lehen aldiz. *Pete Basaburu* zen, 1982an. Egun hartan pastoralak xarmatu, sorgindu ninduen. Ikusgarri horretan dantza, bertsoa, antzerkia eta auzolana elkartzen ziren. Zoragarria. Geroztik ahal izan ditudan guztiak ikusi ditut. Eta gero etxean liburuxka behin eta berriro irakurri. Ene euskara oso justua zen dena ulertzeko, horregatik ahalegin handia egin behar izaten nuen dena konprenitzeko. Eta asko ikasi dut haiei esker. Nire hizkeran edertasun zantzurik bada, pastoraletan ikasi dudana da.

Zergatik Karmen Etxalarkoa pastoral?

Lehen erran behar dut pastoralak idaztea ez dela horren zaila. Buruan ideia argi baduzu, edozein gauza egin dezakezu. Ez zait hainbertze kostatu. Neguko arratsalde batean, Mériméeren lana irakurri berria nuela, hasi nintzen pentsatzen zergatik ez eman tragedia hau pastoral moduan. Denbora-pasa gisara hasi nintzen idazten eta lau bat hilabeteren buruan egina nuen.

Idatzi ondoren pentsatu nuen zer egin nezakeen horrekin eta Etxalarrera joan eta Peio Apezetxea erretoreari buruz joan nintzen. Berak alkatearekin eta kulturen mugitzen den jendearekin harremanetan jarri ninduen. Iduriz ideia gustatu zitzairen eta hainbat bilkura egin ostean hango gazte eta helduek egitea erabaki zuten.

Zenbat jende auzolanean?

Arizale, jostun eta kolaboratzaile guztien artean 160 lagun baino gehiago.

» “Drogaren erruz galdu ditudan adiskideen aipamen berezia egiteko gogoa nuen eta *Harat honat, jonki baten trajeria* liburuarekin lortu nuela uste dut”

» “Sarrionandiaren eta Itxaro Bordaren zale amorratua naiz. Hizkuntza nola maneiatzen duten xoratzen nau. Haiek euskararen ikasteko esperantza eman zidaten”

» “Pastorala batuaz egina da, nik ez baitakit batua baizik, baina saiatsu naiz Pirinioetako ibar guztietako lexikoa hartzen”

» “Nafarrak Pirinioetako indioak gara, agian azken indioak. Nik neuk hala jotzen dut ene burua”

Etxalartarrak gehi Amaiurko Gaztelua taldeko kideak. Hogeitabat lagun baztandar. Haiengana joan nintzen laguntza gisa nobelan aipagai delakoz Joxe Lizarragabengoa baztandarra zela, elizondoarra.

Errejentsa, zuzendaria, Pantomima Urruty barkoxtarra da. Aspaldiko lagunak gara eta berari eskatu nion laguntza. Urteak daramatza pastoralen munduan murgilduta eta zenbaitetan parte hartu izan du. Lehena *Etxahun* izan zen eta ondotik *Ximena* pastoralak etorri zen. 2014. urtean *Gerezien denbora* pastorealean eta *Katalina Erauso* proiektuan parte hartu zuen. Azken horretan zuzendari papera bete zuen. Berehala esan zidan baietz besteak beste, sujeta emazteki bat delako. Bera da ikuskizunaren sortzailea.

Ezin sinetsian nabil. Badakit hau behin bakarrik gertatuko zaidala eta gozatu eta profitatu behar dudala.

Hizkeraren aldetik nolakoa da pastoral hau?

Batuaz egina da, nik ez baitakit batua baizik, baina lexikoaren aldetik saiatsu naiz Pirinioetako ibar guztietako lexikoa hartzen. Hori izan da nire ikasketa bidea eta idazteko orduan horretaz ere baliatu naiz. Galbidean dauden hitz batzuk berreskuratu eta erabil daitezke. Saiatu behar dugu gure euskara, gero eta pobregoa dena, hitz horiekin edertzen.

Pirinioetako hizkeren erakusgarri txiki bat dela esan daiteke. Nik uste dut nafarrak Pirinioetako indioak garela, agian azken indioak. Nik neuk hala jotzen dut ene burua.

Eta iraupena?

Hiru ordu luze. Badakit pastorelek fama txarra dutela, baina erran behar dut pastoraletan ez dela begiratu behar luzea edo motza den, baizik eta dibertigarria eta interesgarria den ala ez. Ikusgarri ona bada iraupena ez da garrantzitsua, futbolekin, pilota partidetan edo rock jaialdiekin gertatzen den bezala.

Egitura klasikoa du?

Pastoralak badu bere “legedia”, egiteko manera bat. Hau pastoral klasikoa izanen da, Hegoaldean eginiko lehena. Duela gutxi *Joxemiel Bidador* pastoralak egin zen Iruñean, zendutako idazle eta ikerlariari omen egiteko sortua, baina ez zuen pastoral klasikorekin egitura.



Horregatik diot gurea lehena dela eta, zentzu horretan, Historia egiten ari gara esaten diet nik parte-hartzaileei. *Karmen*-ek 240 bertset edo koplak ditu, zazpi kantore, dantzak, batailak... Badira gorriak eta urdinak, gaiztoak eta onak, baina ez, ordea, turkoak eta giristinoak. Haur kantariak badira, baina ez dira aingeruak. Oso garrantzitsuak dira, tragedia batean inozentzia eta itxaropena ere azaldu behar baitira. Kantuei dagokienez, denak berriak dira Xalbadorren bertso batzuk izan ezik.

Mustirak guztietan euskara hutsez ari gara, ez da bertze hizkuntzarik izan eta hori inportantea da.

Nolakoa da Karmen?

Argi-ilun aunitz dituen pertsonaia da. Karmen ebaslea eta kontrabandista da. Ezkondua da, baina dozenaka amoretarekin oheratzen da. Ederki ongi daki besteak xaxatzen hilketak eginarazteko. Bere burua eta bere anderetasuna

Berrikuntzak pastoraletan?

“Pastoralek ez dute zertan izan beti biografiak edo historia gaiak. Karmen Etxalarkoaz gain, beste bi pastoral ditut idatziak, baina oso bestelakoak, gai garaikide eta sozialak jorratzen dituztenak. Lehendabizikoa, inoiz taularatu ez dena, drogei buruzkoa da. Pastoraletan gauza askoz hitz egin daiteke eta Euskal Herriko edozein tokitan egin daitezke, auzolanean, arazorik gabe”.

hil artio defendatzen ditu. XIX. mendeko eleberri batean halako emazteki bat agertzeak harritzen nau. Garai hartan ere harrigarria suertatu zen eleberri hau eta kritika latzak jaso zituen.

Jose ere oso pertsonaia bizkorra da. Erromantiko batek idatzitako lana da eta ez da batere moralista. Lan hau den bezala eraman nahi dugu oholtzara. Miren Olaetxea etxalartarra izanen da Karmen eta Jose baztandarra, Miel Joxe Ariztia amaiurtarra izanen da. Hori errespetatu nahi izan dugu, berezitasun moduan.

Mériméeren testuan euskarazko elkarriketak ageri dira, ezta?

Bai. Euskararen aipamen aunitz, baita garai hartako Nafarroako legediaz ere. Ongi ezagutzen zuen Euskal Herria, eta bereziki Nafarroa. Beti aipatzen du Espainia alde batetik eta Nafarroa bestetik, ez bat eginik. Benetan oso lan interesgarria da alderdi askotatik. ■

Katalunia gogoan

Hilabete eskas barru kataluniarrek demokratikoki erabakiko dute Espainiarekiko nolako harreman politikoak eta ekonomikoak nahi dituzten etorkizunean. Agidanez, Espainiako Gobernua bitarteko oro erabiltzen ari da kataluniarren nahiek porrot egin dezaten. Demokraziak Katalunian baliarik izan ez dezan, politikariak, botere judiziala, komunikabide gehienak eta intelektualak erabiltzen ari dira espainiarrak.

Espainiarrek daukaten argudio nagusia legea da eta berau demokraziarekin identifikatzen dute: legea demokrazia da, legea ez betetzea demokraziaren aurka egotea da, alegia. Argumentu ahula. Izan ere, edozein diktaduratan ere legeak daude, Francorekin genituen bezala, baina demokratikoak izatetik urrun; legeak edozein harreman arautzeko izan behar du eta harreman horiek indarrean dagoen esparru juridikoan ez badira behar bezala egokitzen, legea aldatzea besterik ez da gelditzen. Hori da Kataluniari gertatzen zaiona gaur egungo espainiar legediarekin eta espainiar agintariak argudio nagusi gisa erabiltzen ari dira, tranpa eginez.

Bestalde, azpimarratu behar da kataluniarrek oso zuhurrak izaten ari direla prozesu guztia gardena eta demokratikoa izan dadin, mehatxu izpirik erabili gabe. Jokaera horrek are gehiago zaildu die bidea espainiarrei. Oroitu behar dugu Manuel Fraga ministro zaharrak zioena: Katalunia arazoa izango da Espainiarentzat eta euskaldunen arazoa diruarekin konponduko da. Arrazoia zuen, honezkero ikusten ari gara EAJren eta Eusko Jaurlaritzaren jokaera tamalgarria Kataluniarekiko.

Kataluniarrek, ohikoa den bezala, hobekiago bizi nahi dute eta hortik independentzia zale andana ateratzea, Espainiako eliteak ezinezkoa egiten baitie dagokien bizi-mailara heltzea.



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Oroitu behar dugu Manuel Fraga ministro zaharrak zioena: Katalunia arazoa izango da Espainiarentzat eta euskaldunen arazoa diruarekin konponduko da. Arrazoia zuen, honezkero ikusten ari gara EAJren eta Eusko Jaurlaritzaren jokaera tamalgarria Kataluniarekiko

Ezintasun horren ardura Madrilek dauka, Estatuko hiri nagusia dirua irensten duen “zulo beltza” bilakatu baita, egitura arazo bihurtu delarik asegabeko diru publikoaren egarria: Bankia (23 mila milioi), premiarik gabeko autopista radialak (3,5 mila milioi), Barajas

hobetzeko inbertsio erraldoiak, eta aldiz, Prateko aireportukoak arbuiztzen dituzte. Halaber, ez da ahaztu behar Madril inguruko errepideak dohainik direla eta bitartean Katalunian ordaindutakoak. Eta horrela jarraituko genuke kasuak aipatuz, zeinek haserrea areagotu duten kataluniarren artean.

Edozein herrialdek ongizatea eta jendartean aukerak garatu nahi baditu, hezkuntza sistemak garrantzi ezinbestekoa dauka eta zeregin horretan bekak aipatu beharrekoak dira. Arlo horretako datuen arabera, Estatu osoko beken erdia baino gehiago Madrilan banatzen dira eta hamarren bat bakarrik Katalunian.

Oro har, zenbait zenbatespenen arabera, Estatu zentralistak 15-16 mila milioi euro kendu zizkion Kataluniari 2006 eta 2007an; beste batzuen kalkuluen arabera, defizit fiskal hori urtean Kataluniaren BPGren %5,75ekoa da. Beraz, zenbaki oso potoloak dira ekonomia garapenean aurrera egin nahi duen edozein herrialderentzat.

Informazio honek guztiak gardenki adierazten digu Kataluniako zerbitzu publikoak hobetze aldera inbertsio publikoak egiteko diru gehiago izango lukeela independentea balitz. Haatik, egoera tamalgarri honek begi-bistakoa egiten du hainbat eta hainbat kataluniar independentziaren alde bilakatzea, ezinezko baitaie, Espainiaren baitan egonik, bizi-maila duinagoa erdieste.

Amaitzeko, Kataluniaren independentziak, zalantzarik gabe, ikusita zer-nolako eragin ekonomiko negatiboa izango duen Espainiako Estatuan, diru iturri garrantzitsua galtzea ekarriko du, eta ondorioz gure Hitzarmen Ekonomikoa ere arrisku egoeran sartuko litzaitekeela deritzot. Orduan ikusiko dugu noraino den aldebikoa euskal zerga sistema edo Hitzarmen Ekonomikoa.

Zorte onena Kataluniari! ■

Karrikaren taupadak

Uda bukaera. Atera berri da Robin Campilloren *120 battements par minute* (*120 taupada minutuka*) filma Frantziako Estatuko zine-gela guzietan. Iragan mende bukaeran hiesaren (Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea) kontra borrokatzen zen Act Up-Paris elkartearen erretratu hunkigarria, sarkorra eta sumingarria proposatzen du mugimenduko militante izandako zinegileak. Filmak biltzen duen arrakasta izugarriaren aitzinean, boz batzuk altxatzen hasi dira orotarazteko, gaur egun Act Up-Paris mugimendua laudorioz estaltzen duten berdinek zituztela 90eko hamarkadan haren militanteak gogorki kritikatzeko, hiesarekin batera, homosexualak, droga-zaleak, prostitutak, presoak... defendatzen zituztelako. Hots, boteredunek gorde eta laborategiak ustiari nahi zituzten berberak. Karrika zen Act Up-Paris-en oholta. Ekintza sinbolikoen bidez, ikusezina ikusgarri bilakatzen zuten.

Uda erdialdea. Astekari honetan berean, Joseba Alvarezek idazten zuen turismoaren kontrako mobilizazioen harira, karrikan dabiltzanoin gaizki egin dituztela leporatu dietela beren bulegoetatik gaizki egin dituzten horiek. Errealitatea karrikan da, ez administrazioen txostenetan edo (ni bezalako) funtzionarioen Excel tauletan.



Eneko Gorri
EUSKARA TEKNIKARIA

Errealitatea karrikan da, ez administrazioen txostenetan edo (ni bezalako) funtzionarioen Excel tauletan. Karrika versus burokrazia dikotomia inoiz baino gaurkotuagoa da

Karrika versus burokrazia dikotomia inoiz baino gaurkotuagoa da. Karrikan gaizki egin izan balira, haien politikak justifikatzera ez ziren aterako hainbeste kargudun. Max Brisson berak, Pirinio Atlantikoak departamentuko turismo komiteko lehendakariak, prentsa aitzinean bere burua defendatu nahi izan du karriketan ikusitako hamar

bat kolaki xumeen ondorioz. Karrikako lanak eztabaida mahai gainean emateko bertutea izan du guttienez. Eta agenda politiko-mediatikoan izatetik aldaketa eragitera, borrokaren intentsitate aferra bat baizik ez da.

Uda hasiera. Hizkuntzen karrika erabileraren datuak aurkeztu dira. Ipar Euskal Herriari dagokionez, sekulan neurtu den indize apalena jaso da. Karrikaren okupazioa aldatu da (gentrifikazioa, espazio publikoaren pribatizazioa) eta egoera soziolinguistikoa okertu (belaunaldi sakrifikatua adin piramidearen erdialdean dugu, familia transmisioa ia-ia eten da, eskolako euskarak ez du etxeko euskarak bezalako espontaneitatea). Baina horrek ez du kentzen egoera kezkarria dela. Euskararen erabileraren inguruko izanen da ondoko bataila. Eta hau ere neurri handi batean karrikatik eraman beharko da.

Uda bukatu da. Sartzea da, baina karrikara ateratzeko arrazoia ez dira eskas: etorkinen defentsan, lan erformaren kontra, euskararen alde edo euskal presoen gaia Parisera ekartzeko. Karrikaren taupadak entzun dira, egituratzen ari den Herri Elkargotik Parisko Beauvau plazako ministerioetaraino. Nork zioen ez zuela karrikak gobernatzen? ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA

Glu-glu-glu-glu



Xabier Mendiguren
IDAZLEA
@xme64

Bukatzeaz dagoen uda honetako egun batean izan zen. Gernikan nenbilen egun-pasa. Gazte bat neukan ondoan, pasieran, eta Joxemari Iparragirreri eskainitako monumentu bat ikusi genuen herri erdiko plazan, brontzezko eskultura-erretiratu horietako bat. “Noski –esan nuen–, Gerniak bere esker ona adierazi behar urretxuarri”. Ondokoak ez zuela ulertu iruditu zitzaidan, eta gehitu nuen: “*Gernikako Arbola* idatzi zuelako, herriari fama eman zion kanta”. Eta orduan ohartu nintzen ez zeukala ideia handirik ez nor izan zen Iparragirre, ez *Gernikako Arbola* kantak zer dioen, ez ezer...

Gazte xalo baten despisteari egotzi nahiko nioke ezjakintasun hori, baina D ereduan ikasitakoa zen, nota onak ateratakoa eta jakin-mina zuena; beraz, pentsatzekoa da berarekin ikasitako guztiek beste horrenbeste edo gutxiago jakingo zutela gai horietaz. Gogoratzen jarri nintzen: nik erdaraz ikasi nuen, giro erdalduna genuen kalean ere, eta hala ere, ez naiz oroitzen nola, arazo handirik gabe kantatuko nituzke Iparragirreren kanta famatuaren hasierak behintzat: “Gazte-gaztetatikan”, “Zibillak esan naute”, “Ume eder bat”, “Zugana Manuela”, “Trapu zaharrak”, “Hara nun diran”... Ez ni bereziki kantazalea nintzelako ere: giroan zegoen nonbait haien berri izatea, edo irratian entzungo genituen, edo ez dakit.

Kontua ez da Iparragirre. Bost axola haren gi-

tarra zakurraren ipurdira bidalita ere. Arazoa da, nire ustez, azken hamarkadetan euskara irakatsi duela eskolak Euskal Herriko zati handi batean; euskaraz ere irakatsi duela eskolak, bai, baina alde batera utzi dela, neurri handi batean, euskal kulturaren transmisioa; belaunaldi berriak euskaradun izan zitezen arduratu gara (zer-nolako euskaldunak, besterik da, eta horretaz ere bada-go zer hausnartu eta zertaz kexatu), baina (ia) inori ez zaio bururatu euskaldun ez ezik, euskaltzale ere bihurtzea.

Ez naiz aditua hezkuntza gaietan. Ez dakit urteotan izan diren curriculumek zer dioten zehazki, ezta gai horiek eskola publiko, ikastola edo eskola kristauetan nola lantzen diren ere, lantzen badira. Sakonago pentsatuta, eskolari bota diot nik errua, baina beharbada gizarte osoarena da akatsa: komunikabide, erakunde, herri-talde eta ni bezalako sasijakintsuena.

Edozein modutan, iruditzen zait herriaren maitasuna (hitz kurtsia barkatzen badidazue), nortasuna eta identitatea berariaz ez lantzeak zerikusi zuzena duela hizkuntzaren erabilera konstatatu dugun beherakadarekin, haur eta gazteen artean sumatzen dugun atxikimendu faltarekin, helduok ere dugun frustrazio sentipenarekin.

Glu-glu-glu-glu kanta entzunda, bizitzaren gorazarrea ez baizik eta urpera doanaren azken arnasa etorriko ote zaigu burura. ■

Islamofobia



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Kalifa-herria. Gerra santua. Antisionismoa. Nazio Batuak. Suniak. Xiiak. Burka. Xaria. Nakbah. Niqaba. Hijaba. Jihada.

Ez *zergatik*, ez *zertarako* ez dira galdera interesgarriak. Ezezagun bezain hutsal zaizkigu, mehatxatzen gaituen horren des-arrazoak. Zentzugabekeriak ez du, definizioz, zentzurik. Ez eta, beraz, zentzuzko definiziorik ere.

Estatu islamiarra. Yihadistak. Daesh. Isis. Terroristak. Islamista erradikalak. Erradikal islamistak. Moha. Youssef. Omar. Said. Musulmanak. Arabiarrek. Guantanamo. Abu ghraib.

Zilegitasun gehiagoz erka ditzakegu orain erlijioa eta ideologia, inklusioa eta integrazioa,

prebentzioa eta estigma, edo ziurtasuna eta kontrola. Zabal ditzagun zuzentasun politikoa-ren mugak. Hitz egin dezagun aske.

Ripoll. Hejira. Henna. Halala. Saint Denis. Teheran. Kabul. Kerbala. Alepo. Mosul. Youtube. Ramadana. Darija. Imama. Islama. Zona grisa.

Eta kalean (edo eskolan, edo lantokian) arabiar, musulman, edo antzekoren batekin topo egitean, akaso, ezpainak tenkatuko zaizkigu; edo ezikusiararena egingo dugu; edo irribarre urduri bat aterako zaigu. Gure buruei galdetu ere egin gabe, ziur aski, ez ote den horixe bera gatazka honetan gugandik ustiatu nahi duten erregaia. ■

Atsedenen ondorioez

Auzokoekin harreman ona dugu-nez, etxeko giltza uzten diegu oporretan goazenean. Horrela, beren udako bisitek gurean ostatu har dezakete. Oporretatik bueltan, hozkailuan gutxieneko jakiak eta, sukaldeko mahai gainean, kanpoan izan garen bitartean etxera heldu zaizkigun astekariak aurkitzen ditugu txukun-txukun pilaturik. Paper-sorta mardul hori gainbegiratu behar izaten dut eguneroko martxa hartu baino lehen. Erritu bihurtutako ohitura zentzugabe bat da. Ez naiz gai etxera heldu eta hurrengo egunean, etenaldirik izan ez balitz bezala, bizitzarekin jarraitzeko. Beste lekuan (jaioterrian) izan naizen bitartean galdu dudana Berlingo denbora berreskuratzeko modua dira astekariaren paperetan inprimaturik dauden hitzak. Niretzat existitu ez den denbora-espazio baterako giltzatxoak dira.

Gutxienekoa da eguneroko gaien haria jarraitu nahi izatea; beste guztia izaten da gehien interesatzen zaidana. Esaterako, zutabe batean irakurri dut atsedent hartzea komeni zaiola nobela bat idazten dagoenari eta, tarte horretan, berak idatzitakoa ez den zerbait irakurri beharko lukeela. Horixe da, hain zuzen ere, udan egin dudana. Zutabegileak dio kontuz ibili behar duela nobela idazten dagoenak, irakurtzeko aukeratzen duen autoreak bere lanean eragina izango duelako atsedenen ondoren. Arrazoi du, noski, idazten ari den horri begiratzeko toki berri bat finkatuko baitu agian irakurketak. Akaso, dena zalantzan jarraziko dio. Beste behin ere!

Zutabegileak Karl Ove Knausgard hartu zuen esku artean bere atsedentaldirako; nik beste norvegiarrarekin hasi nuen uda, Tomas Espedalekin. Fikziora jo gabe idazten dute biek, baina biak irakurri dituztenek aho batez diotenez, zein baino zein ezberdinago kontatzen



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

dute kontatzekoa. Espedalen idazteko moduarekin maiteminduz hasi nuen uda. Poetikoa du prosa, askea, gardena. Gutxitan suertatzen da norbaiten idazkerarekin maitemintzea, eta merezi du sentimendu horrekin gozatzea. Zeharo esperientzia atsegingarria da, intimoa, sakona. Maitemindu gaituen pertsona batekin gertatzen den bezala, adikzioaren antza duen gehiago nahi izate bat, gehiago behar izate bat eragiten du. Beraz, Espedal bat irakurri eta gero, atoa beste bat erosteko premiari erantzun behar izan nion. Zinemara joateko geratuta nengoen eta, eskerrak, harako bidean, hirugarren liburu dendan aurkitu nuen: tapa bigundun ale merkea.

Idazketatik hartu dudana atsedena luze xamarra izanik, irakurketa gehiagorako astia izan dut. Paul Austerren azkena sartu nuen maletan, irakurgailu elektronikoan. Archie Fergusonen biografiaren lau bertsio kontatzen ditu Austerrek. Bizitza bat harantz edo honantz birarazten duten inflexio-puntuak taula gainean jokatzen du. Gertara batzuk dramatikoak dira; batez ere heriotzak, dela gerragatik, dela istripuren batengatik. Erabaki, lorpen, porrot gehienak, hain dira xumeak, ezen oharkabea baitoazen. Mota bateko eta bestekeen bizipenen artean dagoen muga ez da beti argia. Denak dira fikziorako abiapuntu, material.

Egunerokoari berriz heldu ahal izateko nire trikimailuekin ari naizela, bururatzeko zait, Espedalek, dena hankaz gora jarri behar gabe, nire nobelaren idazketan eragina izango ote duen. Ez legoke gaizki. Eta hala balitz, norena litzateke lorpena, berea ala nirea? Literaturaren labirintoan Knausgarden atea ireki izan banu Espedalen ireki ordez? Atsedent hartzean ere, burua ez baitago itzalita, baina lana ez den aktibitateetan galdu behar du lantzean behin. ■

Mendebaldeko baloreak?

Faxismoari aurre egin behar zaio, ekitaldi faxista bat dagoen bakoitzean (...) Hannah Arendt-ek hiru pertsona mota bereizten ditu, nazismoa ahalbidetu zutenen artean: dogmatikoak, nihilistak eta herritarrak orokorrean. Herritar 'normalek' ere nazismoa onartu zuten eta gorrotoaren normalizazio hori arriskutsua da, jende batek ez duelako ezer egingo edo justifikatu egingo dutelako. Kataluniako atentatuen kasuan ikusi dugu: ustezko terroristak garbitu dituzte eta jendeak txalo egin du (...) Prozesu historiko bat da, barne-etsai ezberdinek azaleratua, eta orain pertsona musulmanei egokitu zaie, komunitei edota judutarrei egokitu zitzaizen bezala. Ezberdintasunak daude, baina bazterketa dinamikak eta mekanismoak berdinak dira. Horregatik diot arrazakeriari ez zaiola aurre egin behar aurreiritzi eta estereotipoen aurre eginez, horiek ondorioa dira. Muinera joan beharra dago, estrukturala dela azpimarratu, erraza eta eroso den horretara joan beharrean, epe laburrerako balio dezakeelako, baina epe ertain eta luzera ondorioak izugarri txarrak izan daitezke, egunotan ikusten ari garen moduan (...) Pertsona mota ezberdinak daude: arrazistak, bai edo bai kriminalizatuko gaituztenak;



Fatima Aatar
ANTROPOLOGOA
@fatimaAatar

Orain musulmanei egokitu zaie, komunitei edota judutarrei egokitu zitzaizen bezala. Ezberdintasunak daude, baina bazterketa dinamikak eta mekanismoak berdinak dira

pertsona politizatuak, lagunduko gaituztenak; eta euren burua apolitikotzat dutenak, kutsatzen errazak, horiengan dugu lanik gogorrena.

Zalantzaragarria da nola daraman komunitate musulmanak islamofobiaren kontrako borroka, gutxiagotuaren eta erruduntasunaren lekua hartzen ari

delako. Abdennur Pradok esan zuen: 'Terrorismoa ez da islamikoa' esatea terrorismoaren eta islamaren artean lotura ezartzea da. Inkontzienteki bi kontzeptuak lotzen ari zara. George La-koff-ek azaltzen du *Ez pentsatu elefante batean* lanean (...) Guztiz bat nator Musulmanak Sareko kide batek dioenarekin: zerbait kondenatzeko eskatzen dizun jendeak ez du nahi ezer kondena dezazun, dagoeneko erabaki du erruduna zarela eta esaten edo egiten duzun ezerk ez du haien jarrera aldatuko.

Batasunaren diskurtsoa entzuten du-danean pentsatzen dut ea zer ikusi daukan elite politikoak herritarrekin; klase borroka inoiz baino biziago dago. Behin eta berriz esaten da atentatu hauek gure baloreak eta askatasuna eraso dituztela. Mendebaldeko zein balore? Kapitalismoarenak? Eta askatasuna zeinentzat? Terrorismoa letra larriz bizitzen ari diren musulman horiek guztiak ez al dira sartzen askatasun eta demokraziaren balore horietan? (...) Europan, atentatu bakoitzaren ostean askatasunaren eta demokraziaren defentsaz hitz egiten da, askatasun eta demokrazia hori bera murrizten den bitartean, adibidez Mozal Legearen bidez. ■

EsRacismo ataritik itzulitako pasarteak.



Alberdi
EUSKAL
ARTISAUTZA

- Opari berezietarako
- pertsonalizatuak
- prezio aukera desberdinak

www.argia.eus/denda/makilak
denda@argia.eus | 943 371 545

NAFAR PIRINIOAK BERPIZTERA DOAN BELAUNALDIA

Despopulazioaren, bazterketa instituzionalaren eta biztanleri gero eta zaharragoaren mamua bizi dute aspalditik Nafarroa Garaiko Pirinioetako herritarrek, are gehiago ekialdeko ibarretan: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari. Badira, ordea, beren bizi eta lan proiektuak bertan aurrera ateratzea lortu duten gazteak. Horietako batzuekin izan gara.



Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Pirinioetako bederatzi bizilagunekin elkartu gara, hiru haranetakoak. Silvia Erlanz, Koldo Hualde, Javier Laspidea eta Pilar Glaria Erronkarikoak dira; Nerea Recalde, Nekane Arroyo eta Gonzalo Celay Zaraitzukoak, eta Joseba Martinez eta Miguel Agorreta Erroibarrekoak. Eskualdeari buruz zabaldu ohi den irudi ezkorra errealtatearekin bat al datorren galdetuta, aho batez erantzun dute denek: “Ez”. Pirinioetan bizi nahi duenak lor dezake, baina argi dute horretarako ezinbestekoa dela ingurugiroak eskaintzen dituen aukeretara egokitzea. Esfortzu bat eskatzen du, eta eurek apustu hori egin dute, bizi-kalitateak ahalegina merezi duela sinetsita.

Egun, herrian lan egiten dute guztiek, baina hirian ikasi zuten gehienek, lortutako formakuntza gero bertan aplikatzeko. Koldo Hualdek zurgintza goi-zikloa egin zuen, familiaren aroztégia zain zuelako herrian, eta Javier Laspideak baso-ustiapena ikasi zuen, bailaran horretan jarduteko parada izango zuelako. Azkenean, beste bide bat hartu zuten bai bata bai besteak: lehenak Erronkariko okindegian lan egiten du eta bigarrenak familiaren gaztandegian; herrian jarraitzeko moduko lanbideak, edonola

ere. Hualdek eta Laspideak egin bezala, gazteak jatorrizko ogibideetan profesionalizatzeko erreleboa ziurtatzen du Pirinioetako bailaretan.

Herrian lan egiteko beste bide batzuk aukeratu dituztenak ere badira. Nekane Arroyo zaraitzuarrak ez ditu gustuko lurrari lotutako ofizioak, ile-apainketa ikasi eta negozioa ireki zuen herrian. Hasierako beldur eta zalantzak gaindituta, positiboa izan da emaitza eta negozioa du gaur egun diru-sarrerara iturri bakarra. Bailaran biztanle gutxi izateak lehia minimoa egotea dakar, eta hori lagungarria da.

Silvia Erlanz eta Gonzalo Celayk unibertsitatean ikasi zuten, eta ikasitakoa tokira moldatzea lortu dute. Erlanzek Ingurumen-biologiako karrera egin eta inguru naturalari lotutako enpresa sortu du. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: baso-proiektuak, lorategiak, ingurune hezkuntza... Celayk Soin Hezkuntza eta Kirol Zientziak ikasi zuen eta zahartze aktiboko proiektu bat sortu du Zaraitzu ibarrean eta Nabaskoze Almiradioan, lagun batekin batera. Ezkarotzeko zahar-etxean, osasun etxean eta erretiratuen lokalean ariketa fisikoko tailerak eskaintzen dituzte, duela bi urtetik.

Bizi kalitatea helburu

“Hemen bizitza naturari lotuta dago, autotarren arteko komunikazioa izugarria da, sistemaren parte gara. Eta baratzeak tomateak eta oiloaren arrautzak jaten ditugu, hori ordainezina da”, dio Erlanzek. Haur jaioberria du soinean, eta pozik dago, semea han haziko delako.

Nerea Recalderen kasua esanguratsua da: Irunberrin jaio zen, eta Ezkarotzen bizi da orain. Txikitatik joan da herrira, senideak dituelako, eta haren bikotekideak bailara berekoa da. Erizaintza ikasi zuen Iruñean, Ezkarotzeko osasun etxean lan egitea proposatu zioten eta pentsatu gabe onartu zuen. Bi urte igaro dira ordutik, eta ez du zalantzarik: “Etorkizunean hemen jarraitzeko aukera badut, geratuko naiz. Pazienteenganako gertutasuna eta herriarren arteko konfiantza paregabeak dira”. Baina maiz entzun du galdera: bakardadeak ez al zaitu itotzen? Edo beste hau: Zer egiten duzu zinemarik edo merkataritza-gunerik gabe? “Hemen ez dugu halakorik, baina mendiak ditugu, basoak, ibaiak, elurra”. Eta herrietan jarduera anitz dituztela gaineratu du; Ezkarotzen adibidez, aste osoan zehar dantzak, kirola, jostuntza, euskara eta pintura ikastaroak dituzte, besteak beste.



Goian, Erronkari. Bertan ireki dute landetxea Oihane Garmendia eta Pilar Glariak (behean, ezkerreko argazkian). Eskuinean ardiak: lehen sektorea funtsezkoa da Pirinioetan.

ARGAZKIAK: DANI BLANCO



A. ESLAVA



GONZALO CELAY

Nekane Arroyo, Nerea Recalde eta Gonzalo Celay, ezkerreko argazkian. Celayk Soin Hezkuntza eta Kirol Zientziak ikasi zuen eta zahartze aktiboko proiektu bat sortu du Zaraitzu ibarrean eta Nabaskoze Almiradioan, lagun batekin batera.

» Hiru kolektibo
sortu dituzte bailara
ezberdinetako
herritarrek: Bizirik
Gaude, Pirinioan Lan
eta Bizi, eta Txantxalan.
Azokak, elkarretaratzeak,
hitzaldiak... antolatzen
dituzte, eta Nafarroako
Legebiltzarrari
zuzendutako sinadura
bilketa ere egin dute

» **GONZALO CELAY:**
“Hobera egitea da
oinarrizko zerbitzuen
kalitatea hobetzea.
Helburua ez da jende
gehiago etortzea, baizik
eta hemen gaudenak
ongi egotea eta hirikoak
baino gutxiago garela ez
sentitzea”

Lehen sektorea: trabak eta alternatibak

Jende gazte prestatua herrietara itzultzea eta ikasketak bertan aplikatzea oso positiboa da zonaldearentzat; Pirinioetako oinarri ekonomikoa, baina, lehen sektorea da, eta egoera larrian dago: jarrakortasuna falta da, ahula da gazteek lurrarekiko duten lotura. Miguel Agorreta Auzperrikoa (Erroibar) eta abeltzaina da. Egungo egoerak kezkatzen du, haren adinekoak azken nekazari eta abeltzainak izan daitezkeela ikusten duelako. Arazoaren jatorria, “traba administrati- boak”. Abereen eskumenak eta diru- la- guntzak Europar Batasunak zehazten ditu, baina estatu bakoitza da interpretatzen dituen eta erabakitzen duena hauek nola aplikatu, eta Agorretak azaldu digunez, Espainiako eta Frantziako estatuen kudeaketa-ereduek ez dute zerikusirik: Frantziako araudiak nekazari eta abeltzain txikiei mesede egiten dien bitartean, Espainiakoak agroindustria bultzatzen du. “Burgosko behitegi erraldoiari eta antzekoei zuzendutako legedia ezarri du Espainiak, eta hori ez dator bat gurekin, hemen ez dagoelako esplotazio handirik. Halako oztopo burokratikoekin nola sartuko da jende gaztea?”.

Alternatibak sortzea baino ez zaie geratzen nekazari txikiei: zuzeneko salmenta, ekologikoen aldeko apustua, norberaren produkzio bereizia... Agorretak zuzeneko salmenta aukeratu du, bitartekariak kenduta etekin handiagoa ateratzen duelako eta polita iruditzen zaiolako erosleak bere produktuak zu-

zenean kontsumitzea, haren bordara gerturatu eta animaliak nola dauden ikusteko parada izatea. Hala ere, horretarako inbertsio handiak egin behar izan ditu eta industria handiari eskatzen dizkioten baldintzak bete.

Erlanzen, gazteagoa izan arren, Espainiako Estatuaren legedia sufritu du baita ere. Xaboiak, marmeladak eta ezta landu eta saldu nahi ditu, baina oraindik ez ditu lortu eskatzen dizkioten baimen eta ziurtagiriak. Prozesua oso luzea eta garestia dela eta azkenean kontsumitzaileak askoz gehiago ordaindu behar izaten duela kritikatu du: “Larre guztiak ekologiko bezala ziurtaturik dituen bailara batean galarazten digute bertako produktuak saldu eta kontsumitzea”. Iparraldea aipatu dute biek eredu gisa, “hango abeltzainak etxean gela bat mol- datu eta lanean has daitezkeelako”.

Turismoa, tokiko sozio-ekonomia indartzeko tresna

Pirinioetako ekonomiarentzat beste sostengu garrantzitsu bat turismoa da. Jende anitz gerturatzen da urtero Otsagi eta Izaba bisitatzaera, Irati oihana ezagutzera, mendi-txangoak egitera edota Belaguan eta Abodin eskiatzaera. Naturari, historiari eta landa eremuari lotutako turismoa da, lasaia, herrietan kontsumitzen duena eta gerora itzuli egiten dena.

Pilar Glariak turismo teknikaritzako goi-zikloa ikasi zuen eta kudeaketa ekologikoko landetxe bat ireki du. Joseba Martinezek sukaldaritza ikasi zuen eta Auzperriko kanpinean sukaldari ari da, bere

“ELIKADURA BURUJABETZA EZINBESTEKOA DA HERRIEN GAINBEHERA GELDITZEKO”

Egungo elikatze eta erosteko ohiturek kezkatzen dute Joseba Martinez sukaldaria. Aspaldi hasi zen elikadura burujabetza aztertzen, bertako nekazari eta abeltzain txikiek produzitzen dituzten jaki ekologikoak kontsumitzea, osasunarentzat onuragarria izateaz gain, baliagarria baita herriak bizirik mantentzeko, tokiko ekonomia, kultura eta bizia bultzatzeko eta natura zaintzeko. Nafarroako beste zenbait gazterekin batera elikadura burujabetzako taldea sortu du, Gazteraiki topaketen testuinguruan. Landa eremuko produktore txikiak eta hiriko kontsumitzaileak lotzen dituzte: abeltzain eta nekazariek eskaintzen dituzten produktuen zerrendak helarazten dizkiete erosleei, eta jaki horiek zuzenean erosteko aukera ematen diete. “Sare honen bidez tresna bat ematen diogu hiriko kontsumitzaileari modu duinean bazkatzeko eta erosteko, eta era berean, abeltzainari laguntzen diogu. Justizia kontua da; gauzei duten balorea eman behar diegu. Nik Miguel bizilagunari erosten diodanean, hari laguntzen diot, baina baita



Joseba Martinez eta Miguel Agorreta.

haren familiari eta inguruari ere, eta sektore bat mantentzen dut; azken batean, herria egiten dut”.

“Orain dela hamar urte, herriko gazte txean ez zitzaigun bururatu ere egiten hondakinak birziklatzea, orain pentsaezina da ez birziklatzea. Elikadura burujabetzarekin berdin gertatuko da, ez delako onargarria

herri mugimenduetan filosofia hori ez txertatzea. Erronkari heldu behar diogu, lurra zaintzearen, geure burua zaintzearen eta sozioekonomia bat sortzearen”.

Iparraldeko laborariek lorturiko garai-penak ditu hizpide: “Espainiako Estatuan bezala, Frantziakoan ere produktore txikiek agroindustriaren mehatxuari aurre egin behar izaten diote; haiek, ordea, indar handiagoa dute: sindikatuak ahaltsuak dira, Laborantza Ganbara dute, anitz batzen dira eta euren hitzak garrantzia du”. Hiltegiak jarri ditu adibide: “Hiltegi txikiak ireki dituzte eta zuzeneko salmentarako irizpideak batu, eta horrek balio izan du gazteria eta herria finkatzeko eta lurralde lotutako sozioekonomia bat sortzeko”. Auzperritarrek gertutik jarraitu du prozesua eta ikusi du jaiotzen ari den sistema horrek, hainbat arazo eta kontraesan izan arren, egoera iraultzen ari dela, jende gaztea gurgilean sartzen ari dela, eta laborarien borroka izan dela gakoa, borroka horri esker eman baitira aldaketa administratiboak. “Hori da segi beharreko eredu eta hori da guk bultzatuko duguna”.

herrian. “Nik abeltzainari erosten diot haragia eta hari laguntzeko modua da”.

“Hemen bizi daitekeela sinetsi behar dugun lehenak geu gara”

Pirinioetatik kanpo ikuspegi negatiboen zabaldu dela iritzi diote elkarriketatuek. Celayren hitzetan, irudi ezkorra zabaldu du adineko jende batek: “Herria ezagutzen dute, euren eta inguruko esperientzia, eta lehen sektoreari buruz hitz egiten dute, behearantz egin duen sektore batez, horregatik oso ilun ikusten dute dena. Guk, ordea, ateratzeko aukera izan dugu eta ikusi dugu kanpoan ere gauzak zailak direla, toki bakoitzak bere ahuluneak dituela, hemen bezala edonon”. Krisialdiaren aurretik, okasioz betetako esparrua zen Iruñea herrietako gazteentzat, han ikasi eta bertan aurkitzen zuten lana. Orain, pareko ikusten ditu Celayk herria eta hiria: “Hortzak ikusi dizkiote otsoari eta egungo bizi eta kontsumo ereduaren inguruan hausnartzen hasi dira, zerbait aldatu behar dela ikusi dute. Nik argi

daukat: hemen bizi eta lan egin daiteke, baina sinetsi egin behar dugu, bestelagureak egin du”. Horretarako, ezinbestekotzat jo ditu oinarritzko zerbitzuak, bailara guztietan: medikua, ikastetxea, haurtzaindegia, saltokiak, tabernak. “Hobera egitea da zerbitzu horien kalitatea hobetzea. Helburua ez da jende gehiago etortzea, baizik eta hemen gaudenak ongi egotea eta hirikoak baino gutxiago garelako ez sentitzea”.

Ateak zabalik

Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta ilusioa pizteko asmoz, hiru kolektibo sortu dituzte bailara ezberdinetako herriarrek: Bizirik Gaude, Pirinioan Lan eta Bizi, eta Txantxalan. Azokak, elkarretaratzeak, hitzaldiak eta antzekoak antolatzen dituzte, eta maiatzean Nafarroako Legebiltzarrari zuzendutako sinadura bilketa egin zuten (2.152 denera), despopulazioaren arazoa agendaren erdigunean jar dezatela eta onartzen diren legeek Pirinioetan nola eragiten duten aintzat har dezatela eskatzeko.

Bizirik Gaude taldean aritzen da Gonzalo Celay eta aktibaziorako tresna egokia dela dio, gazteak falta direla sumatu arren: “Desmobilitaturik daude eta beste gazteok antolatzen ditugun gauzak ez dituzte balioesten, harik eta egiteari utzi arte. Gizartean orokorturik dagoen joera da, baina herri txikietan eraginak areagotzen dira eta konprometiturik gaudenon erantzukizuna



handiagoa da". Hala ere, frustrazioaren eta ez-kortasunaren aurrean, ilusioa da nagusi.

Pirinioetako Mahaia ere eratu dute, haranen arteko batasuna indartzeko, eta elkartearen eta administrazioaren arteko bitartekaritza egiteko. Herrietako hamabost ordezkari osatzen dute eta hainbat lantalde sortu dituzte, irekiak, herritarrek aukera izan dezaten proposamen zehatzak plazaratu eta Legebiltzarri edo Gobernuari helarazteko. Etxebizitza da lantzen ari diren gai nagusietakoa, Pirinioetan bizi nahi duten gazte gehienek baitituzte emantzipatzeko arazoak. Herrietan etxe asko daude hutsik eta salgai, baina han-



Pirinioan Lan eta Bizi ekimenak Oroz Betelun antolatutako azoka.

diegiak eta garestiegiak dira, ez daude alokairuan eta erosiz gero, egokitzeko inbertsioak egin behar dira, zahartuta daudelako. Alokairu soziala bultzatzen ari da hainbat udal, baina prozesua

motela da. Legebiltzarrean ere onartu dute arazoa larria dela eta gauzak aldatzeko premia dagoela, hala dio Pirinioetako Mahaian dagoen Martinezek. Pirinioen inguruko ponentzia egin dute, talde guztien oniritziarekin, eta zonaldearen egoera sozioekonomikoaren analisia aurkeztu, konponbideak proposatzeko.

Baina Martinezek ez du aldaketa handirik sumatu Nafarroan Lauko Gobernua indarrean dagoenetik. Hori bai, entzuteko eta pausoak emateko prestutasuna erakutsi dutela dio, eta inoiz baino ate gehiago irekirik dituztela: "Aukerei dagokienez, ni bizi naizenetik unerik onean gaude". ■

ZIENTZIALARI TXIKIENK ERE GOZATU ETA BIZITZEKO!

17€

www.elhuyar.eus/denda

Irati Salsamendi Lozano, Jantzigintza ikaslea: “Elite batek kontrolatzen ditu moda-gustuak”

Jantziek eta janzerak gauza asko erakusten dute norberaz. Nolakoak gara, ordea, guztiok berdin janzten garenean? Irati Salsamendi Lozanok erantzun dio galderari, Jantzigintza eta Patroigintza ikasten ari den donostiarrak. Moda, manipulazioa eta interesak aipatu ditu, besteren artean.



Ainhua Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA

“Sistema oso batek egiten ditu modak eta gustuak”, dio Salsamendik: “Modaren alde sinbolikoa, tendentziak, kanon estetikoak eta kontsumoa, patriarkatuaren eta kapitalismoaren tresna boteretsua dira, interes batzuen baitan sortuak. Osagaion baturak sistema hegemonikoaren ordena mantentzeko tresna perfektua sortzen du”.

Bartzelonan ari da Jantzigintza eta Patroigintza ikasketak egiten. Bere hitzetan, kontzientziarik ez duen ikasleak betiko ikuspuntu eta ereduak landuko ditu eta ondoren merkaturatu: “Ikasle batek ez baditu bere kabuz arauak hautsi eta zalantzan jartzen, modaren sektoreak berezkoak dituen balore sexista eta kapitalistak errepikatuko ditu”. Ehungintza eta modaren industria kontsumitzaileen gustuak manipulatzera iritsi daitekeela dio. Hala, tendentzia batzuk jarraitu eta leku bertsuetan kontsumitzeak gustu berdinak izatera bi-

deratzen gaitu: “Merkatuak inposatzen eta erabakitzen dituen moda-gustuak agintzen dute jendartearen; elite batek kontrolatzen ditu gustu horiek”.

Gorputz jakin batzuentzako arropak

Estiloez gain, zerk eta nork bilakatzen du janztea eta janzkera interesgarri? Esaterako, modaren eta ehungintzaren merkatua nagusiki emakumeei bideraturik dagoela esan digu Salsamendik: “Ez behar handiagoa dugulako, baizik eta gure berezko interesa dela sinetsarazi digutelako”. Emakumeen interesak desbideratu eta kontrolpean izateko trikimailutzat du.

Emakumeok txikitatik presio estetikoak jasaten dugu. Desiragarriak izateko jaiotzen garela eta edertasun kanon batzuen menpekoak garela zabaltzen dute publizitate kanpainen. Idatzi gabeko arauak erabakitzen dute nor den desiragarria eta onartua, eta nor ez. Mezu hori arroparen bitartez ere zabaltzen dela dio donostiarrak. “Badira neurri handiko jantziak ekoizten dituzten enpresak, baina ez kezkatu, publizitatean

argi utziko dute arauetatik kanpo gelditzen diren pertsonentzako arropa dela”.

Bestalde, ehungintzaren industrian ekoizleak nagusiki emakumeak diren arren, egoera prekarioan egiten dute lan: “Aitortza publikoa duten postuak maskulinizatuta daude, eta ikusezin eta prekarioak direnak feminizatuta”.

Horretaz guztiaz jabetuta, ehungintzan bide berriak zabaltzeko gogoz da Salsamendi. “Soberan prestatuta gaude nahi duguna ekoizteko”. Betiko ehungintza eredu eta enpresak burutik kendu eta bestetako alternatibak badaudela azpimarratu digu; jantzigintza eszenikoa, esaterako. “Antzerki konpainia batean egon naiz lanean, txotxongilo obra baterako jantziak egiten eta oso arlo interesgarria iruditu zait, bai sorkuntzaren aldetik, baita ikuspegi politikotik ere”, diosku. ■

» **Modaz erreportajea:** gaiatz gehiago jakiteko, ARGIAren 2560. zenbakian plazaratu genuen erreportajea irakurri dezakezue: *Moda jasagarria. Etiketak moztu, etikak josi*.



Arrasto partekatuak

1936ko gerratik ihesi Euskal Herria utzi behar izan zutenei galdetu diete batetik, eta gaur egun errefuxiatu direnei bestetik, erbesteratze prozesuak eragindako beldurrez, saminez, itxaropenez, emozioez... Batzuek eta besteek antzeko zauriak dituztela agerian geratu da *Memoria partekatuak* ikerketan.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

“Thes-bidaian semea galtzeko zorian izan nintzen une askotan. Gauetan ezin nuen lorik egin, egunsentian garrasi egiten nuen, amesgaiztoak nituen, hiltzen nindutela amesten nuen, erretzen nindutela, ibaian nengoela eta urak semea eramaten zuela” (Mayriam Fathi, Kurdistan); “inoiz ez dut ahaztuko irten nintzen eguna, nire ama eta alaba baino ez nituen buruan, ea berriz ikusiko ote nituen noizbait. Baina alaba laguntzea ere banuen buruan, nik txikitzen sufritutakoa berak sufritu ez zezala, eta bere bizitza hobetuko zuen edozer egiteko prest nengoen” (Hady Traoré, Mali); “gurasoek gogoz kontra abiatu zuten erbesterako bidaia. Aitak atzean uzten zituen etxe familiarra, hiruzpalau belaunaldi, oso zaharra zegoen ama bat, jaioterria, euskara. Berarekin eramaten zuen dena, eta aldi berean dena uzten zuen” (Arantzazu Amezaga, erbesteratua). Testigantza ugari jaso dituzte CEAR-Euskadi erakundeko kideek, migrazio prozesuetako bizipen gordinak bildu eta ikusarazi asmoz. “Deserriratzeari tala emozional itzela da edozeinentzat; bat-batean egun batean ihesi atera behar duzu, ezezaguna den horretara”, dio proiektuaren koordinatzaile Beatriz de Lucasek.

Tristura, zatiketa, herimina, izua, nekea, biolentzia, noraeza, erruduntasuna, mesfidantza, etorkizun hobe baten esperantza... dira garai bateko eta besteko

errefuxiatu, desterratu eta migratzailerik errepikatzen dituzten sentimendu eta bizipenak. “Gizarte guztiz ezberdin batera iritsi nintzen; ez nekien hizkuntza, ez nuen inor ezagutzen”, dio Fathik. Helmugan aurkitutakoa ere ez da sarri aurretik amestutakoa, eta handiak izan ohi dira talka kultural-sozial-linguistikoa, gizarte berriaren ezezagutza, lanerako eta aurrera egiteko trabak... “Inoiz ez nintzen haur izan, ezta nerabe ere. Txikitatik heldu izatea egokitu zitzaidan, bestela erbestean galdu egiten zarelako” (Arantzazu Amezaga); “gurasoek beti pentsatu zuten itzuliko zirela, eta inoiz ez ziren guztiz integratu. Guri ere guztiz eragin zigun horrek, ez hango ez hemengo” (Maitena Jauregi, Euskal Herria); “oso bakarrik sentitzen naiz batzuetan, hainbat eremutan oraindik ere estralurtarra banintz bezala begiratzen naute. Eta hor hasten gara, nahi ez badugu ere, ghettoak sortzen, gaitza delako jendea erakustea gertatzen ari zaizun horretan sufrimendu zama izugarria dagoela” (Rosario Vásquez, Kolonbia).

“Inoiz ez naiz damutu”

Estigmak eta aurreiritzi sozialek diskriminatuta eta gutxietsita sentitu direnak ez dira gutxi. “Denbora guztian aritu behar duzu zein zaren frogatzen, zein den zure esperientzia, zein ekarpen egin dezakezun. Ulertzen saiatzen



naiz; Lehen Munduko kide gisa eman dizuten hezkuntzarekin zerikusia duela pentsatzen dut, kolonizatzaile iruditegi horrekin. Asko kostatu zait harreman benetan horizontalak aurkitzea, jendeak uste du gauza asko erakutsi behar dizkidala, niri entzun gabe” (Rosario Vásquez). Migratzaile eta emakume izateak, gainera, zama bikoitza izaten du maiz. “Etxeko edo zaintza lanetarako bakarrik hartzen gaituzte, eta askotan sentitzen duzu lanean ari zarela jende batentzat intelektualki zuk baino gaitasun gutxiago duena, baina kanpoko izateagatik begiratzen zaituen ikasketa gutxiago bazenu bezala. Ez dugu nahi zaintzaile bezala bakarrik ikus gaitzaten, ate gehiago irekitzea baizik. Bestela, gure alabek diote: ‘Zertarako ikasi eta karrera bat egin, azkenean zaintzaile izango bagara?’” (Fatma Galia, Sahara). Kontrapuntua, emakume gisa jatorrizko herrialdean baino askeago izateko ere balio izan diola hainbati bidaia: “Hemen aukera izan dut ez inoren ama, ez arreba, ez alaba izateko; nire buruarentzat baino ez naiz jaikitzen goizetan. Eta normalean, emakumeok ez daukagu aukera hori bizitzan, ezartzen dizkiguten rolen arabera aritu behar dugu. Hori izan da irabazirik handiena, eta arraroa da, ez nuelako ez bilatzen, ez eskatzen. Horrek ez du esan nahi *nireak* maite ez



ARITZ LOIOLA



DANI BLANCO

Hady Traoré Durangon bizi da. Malitik migratu zuen 2005ean, pobreziatik ihes egin eta amari eta alabari etorkizun hobea eskaini asmoz. Arantzazu Amezagaren gurasoek Parisa egin zuten ihes 1937an, Otxandio, Erandio eta Gernikako bonbardaketen ostean; 1940an Atlantikoa gurutzatu zen Arantzazu; Uruguai eta Venezuela ere izan zituzten bizileku.

ditudanik, hori guztia barneratzea ere zaila da" (Rosario Vásquez).

Dena ez da min eta atsekabe bizileku berrian. "Inoiz ez naiz damutu; jaioterri- tik alde egin nuen han ez nuelako etor- kizunik. Malin ez daukat etorkizunik, eta hemen badakit borrokan jarraitu de- zakedala" (Hady Traoré). Aurrera egin ahal izateko, gako ugari nabarmendu dituzte elkarrizketatuek: espiritualita- tea, jatorrizko identitatea mantentzen laguntzen dieten elkarguneak (euskal etxeak sarri aipatzen dituzte 1937an erbesteratuek), gizarte berrira integra- tzeko ahaleginak (hizkuntza adibidez), urruti izan arren babes izaten jarrai- tzen duten senideak, sare antolatuak... "Elkarte feministak besarkatu egin nau uneoro, zutik jarraitzen eta nire bizitza duintzen lagundu didate. Pertsonalki hazteko baliabideak eman dizkirate, egonkortasuna. Beste mundu bat posi- ble den ideia eraikitzen dut beraiekin, bizitza eraikitzen dut, borroka" (Ampa- ro Pimiento, Kolonbia).

Testuinguru berrira hobeto egokitze- ko eta elkarbizitza errazteko, gizartean jatorrizko herrialdeetako egoera ezagu- taraztea eta ulertaraztea beharrezkoa dela iritzi diote migratzaileek, aitorpen soziala lortzea, errefuxiatu estatusaren onarpen juridikoa prozesu azkar eta gar- den baten bidez eskuratzea, eta migrazio politika egokiak bideratzea, behingoz.

» **ROSARIO VÁSQUEZ, ERREFUXIATUA:**
"Hemen aukera izan dut ez inoren ama, ez arreba, ez alaba izateko. Horrek ez du esan nahi *nireak* maite ez ditudanik, hori guztia barneratzea ere zaila da"

» **BEATRIZ DE LUCAS, CEAR-EUSKADI:**
"Elkarrizketatu guztiengan itxaropena antzeman dugu, euren bizitzak hobetzeko itxaropena, etxera itzuli eta maite duten jendearekin elkartzeko itxaropena"

"Ez dugu ezer ikasi"

Garbi du Beatriz de Lucasek: "Duela ur- teak hemendik ihesi joan zirenen es- perientziatik ez dugu ezer ikasi. Are gehiago, badirudi ahaztu egin dugula herri gisa bizi izan dugun esperientzia hori, eta horretatik ikasi beharrean eta atzerrian hobeto bizitzen zerk lagundu zigun ikusi beharrean guk ere antzeko bortizkeriatik ihesi datozenei harrera humanoagoa egin ahal izateko, kontra- koa ari gara egiten. Jende gutxi eta gaiz- ki ari gara hartzen. Ez naiz gizarteaz ari, baina jendearen solidaritateaz harago, instituzioek ez dute nazioarteko arau- dia betetzen eta gizarteak ulertu behar du ez dela karitate kontua, justizia eta eskubide kontua baizik. Ihesean eta asi- lo bila datozenek horretarako eskubi- dea dute".

Hala ere, elkarrizketatuen artean es- perantza ala etsipen gehiago ikusi ote duten galdetuta, itxaropena azpimarratu nahi izan du De Lucasek: "Ez dute euren burua egoera bidegabe baten biktima gisa bakarrik ikusten, situazio mingarri horri aurre egiteko gai diren pertsonak ere badira. Eta elkarrizketatu ditugun la- gun guztiengan, erbesteratu eta errefu- xiatuengan, itxaropena antzeman dugu, euren bizitzak hobetzeko itxaropena, jatorrizko herrialdeetako egoera alda- tzekoa, etxera itzuli eta maite duten jen- dearekin elkartzeko itxaropena". ■

Maialen Urbietak, Eleaniztasuna eta Hezkuntza masterra egin du

“Sorpresa izan da gaztelaniazko testuetan etxetik euskaldun direnek erdaldun direnek baino nota hobeak ateratzea”

AEBetan bi umeren zaintzaile zela piztu zitzaion bonbilla. Ingelesezt, gaztelaniaz eta keinu hizkuntzan aritu behar zuen haiekin, gurasoek hala eskatuta. Haurren bilakaera ikusita, ikasketak horra bideratzea erabaki zuen. EHUKo *Eleaniztasuna eta Hezkuntza* masterra eta *A study of multilingual writing* (idazketa eleanitzen ikerketa) ikerlana egin ditu. Bizkaiko eskola batean egindako ikerlan hori kontatzeko eskatu diogu.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Maialen Urbietak Irakasle-ikasketak egin zituen EHUn, ingelesa irakasteko Haur Hezkuntza graduondoa egin du eta euskara irakasteko Lehen Hezkuntza graduondoa ari da egiten. Getariarraren berri sari baten bidez izan dugu. Compostela Unibertsitate Taldeak emandako saria lortu du, masterreko ikerlana hiru minututan bidez kontatuta.

Ikerlanaz galdetuko dizugu, baina lehenago kontatu ezazu AEBetako esperientzia. Haurrak zaintzera joan nintzen familia batera. Bereiziki bi hilabeteko haurra zaindu behar nuen. Hari denbora guztian gaztelaniaz egitea nahi zuten gurasoek eta 4 urteko ahizpa eskolatik etortzen zenean ingelesez. Horiez gain keinu hizkuntza erabili behar nuen txikiarekin.

Helduentzat ezagutzen dugun keinu hizkuntza?

American Baby Sign Language deitzen diote. Eskuko telefonoetarako aplikazioak daude eta horietan begiratzen nuen: “esnea” horrela [keinua egin du], “ama” horrela, “aita” horrela. Umeak urtebete baino lehen pardela aldatzeko eskatzen zidan. Komunikatzeko era oso

ona zen. Gaztelania eta ingelesa beranduago etorri ziren, baina keinuak azkar ikasi zituen. 8 hilabeterekin esnea eskatzen zuen, “gehiago nahi dut”, “lotara joan nahi dut”, “aldatu pardela”... keinuak egiten zekien. Keinu bidez azkar hasteak frustrazioa gutxitzen du. Bere betebeharrak lehenago daude aseta. Haurrak ia inoiz ez zuen negarrik egiten, eskatu egiten zuen eta nik ederki ulertzen nion.

Ahizpa nagusiak gurasoekin ingelesez egiten zuen eta 6 hilabete zituenetik gaztelaniaz egiten zuen eskolara eramaten zuten. Bi umeek hainbat hizkuntzatan moldatzeko zein gaitasun zuten ikusi nuen.

Eta bonbilla piztu zitzaizun.

Pentsatu nuen, “ostras, hau ederra da, nik honetaz gehiago ikasi nahi dut!”. Orduan, *Eleaniztasuna eta Hezkuntza* masterrak arreta eman zidan.

Masterreko ikerlana zertaz egin zenuen?

Mikel Goikoetxea eta biok egin dugu lana, Durk Gorter [EHUKo ikerlaria, eleaniztasuna hezkuntzan aditua] buru dugula. Gorterrek egindako material bilketa baliatu dugu. D ereduan irakasten duen

Bizkaiko eskola bateko 114 ikaslek euskaraz eta gaztelaniaz egindako idazlanak aztertu ditugu. 10, 11 eta 12 urte dituzte. Haur horietako batzuk etxetik euskaldunak dira eta etxetik kanpo gaztelania arnasten dute, herrian gaztelania nagusi baita. Beste batzuek etxetik gaztelania dakarte eta euskararen berri ikastetxean izan dute. Badira etxean beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztenak ere. Haien idazlanetan hainbat gauza aztertu eta puntuatu ditugu: testuaren antolaketa, edukia, ortografia, gramatika, hizkuntza erabilera (aditz sinpleak darabiltzaten ala konposatuak...).

Ikerlanaren helburua zein zen, hipotesiren bat frogatzea?

Eleaniztasun goiztiarra onuragarria dela dioten teoria asko daude. Gure helburua hori frogatzea zen. Emaizta halakoa izan da: eleaniztasun goiztiarra positiboa da. Hau da, jaiotzetik etxean euskaraz egin duten haurrek, eta era berean kalean gaztelaniaz ari direnek, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz idatzitako idazlanetan izugarritzko aldea ateratzen die etxean jaiotzetik gaztelaniaz egin eta bigarren hizkuntza, euskara, geroago ezagutu dutenei.



» “Eleaniztasun goiztiarra onuragarria dela dioten teoria asko daude. Gure helburua hori frogatzea zen”

Beraz, ikerketako jomuga elebidun goiztiarrak zenituzten, kasu honetan, jaiotzetik etxean euskara eta kalean gaztelania arnastu dutenak.

Haur elebidun goiztiar horiek nolabait teko onurarik duten jakin nahi genuen. Euskarazko idazlanak hobeto egitea espero genuen, baina sekulako sorpresa izan da gaztelaniazko testuetan etxetik gaztelaniaz datozen haurrek baino nota hobeak ateratzea.

Gaztelaniaz idatzitakoetan?

Bai, hori da harritzekoa. Elebidun goiztiarra izatea positiboa da, baina zein mailataraino? Ikerlanaren arabera, emaitza horiek lortzeraino.

Zer esan nahi duzu esaldi honekin? “Pertsona eleaniztunek onurak dituzte maileko kognitiboan, ez azterketa emaitzetan bakarrik”.

Gauza bat da ikerlanean ikasleek zein nota atera duten idazlan bakoitzean eta beste gauza bat da haur horiek estra-

tegiak garatzen dituztela hizkuntza batean ikasitako gauzak beste hizkuntzara pasatzeko.

Lehiaketarako prestatutako bideo grabazioan diozu eskolan hizkuntza bakoitzeko irakasle bat eta ikastordu bat formula, agian ez dela egokiena.

Ikerketan, batetik, etxetik euskaraz datozenek hala ez datozenekiko duten aldeaz aritu gara, eta bestetik, haur beraren bi idazlanak alderatu ditugu. Ikusi dugu nola euskarazkoa paragrafoetan idazten bazuen gaztelaniazkoa paragrafoetan idazten zuen, eta euskarazkoari izenburua jartzen bazion gaztelaniazkoari ere bai... Jakintza hizkuntza batek bestera pasa daiteke. Beraz, ez dauka zentzurik euskarako irakasleak idazten irakastea, gaztelaniazkoak gauza bera egitea, eta ingelesekoak ere bai.

Kanadako esperientzien berri izan duzu.

Han hizkuntzen ikasgaia daukate, agian hiru ordukoa da eta hizkuntzak lantzen

dituzte. Horren arabera, ez litzateke egongo euskara ikasgaia, gaztelania ikasgaia eta ingelesa ikasgaia. Kanadako moldeari zentzua ikusten diot, nahiz eta ikerketan molde horren onuragarritasuna frogatu ez dudan. Hemen hizkuntza irakasleek elkarren artean hitz egiten dute, baina hizkuntzen ikasgairik ez dago.

Arrisku bat ikusten diot Kanadako sistemari. Han ikasle bakoitzak nahi duen hizkuntza lantzen du. Agian, Getarian ez duzu arazorik izango, euskarak galerririk izango ez duelakoan, baina Bilbon? Oso neurtuta egin beharko litzateke, ez nuke edozein tokitan arin-arin jarriko. Euskara hizkuntza gutxitua da eta gaztelania gailendua. Ez nuke nahi eleaniztasunaren alde egiteagatik euskararen kontra egitea.

Maialen Urbieta irailean Hungariara joatekoa zen, han izango baita Compostela Unibertsitate Taldeak antolatutako lehiaketaren sari banaketa. Ez da joango, Udako Euskal Unibertsitateak hainbat hilabeterako lana eskaini baitio Ulibarri programan. Pena eman dio saria jasotzera ezin joanak, baina badaki eleaniztasunaz ikasten jarraitzeko aukera paregabea duela orain UEUko lanean. ■

Diadatik Kataluniako Errepublikari begira

Gainean da irailak 11, Kataluniako Diada. Bereziak izan dira azken seiak eta bereziagoa izango da aurtengoa: urriaren 1ean autodeterminazio erreferenduma egingo da. Nola? Inork ez daki. Madrilgo Gobernuak dio ezetz, Kataluniakoak baietz. Aste honetan orain arteko desobedientzia fase gogorrenari ekingo diote Kataluniako instituzioek.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIA: ANC

Nola irudikatzen duzu erreferenduma-ren egunaren hasiera? “Ez da erabateko normaltasuna izango duen erreferenduma, mehatxuak eta deslegitimazio saioak hor izango direlako azken minutura arte. Seguruenik, ez gara joango bozka ematera goizeko 9etan edo 8etan, 6etan baino, erabateko bermea emateko, hauteskunde guneak zabaldu ahal izan daitezen, sabotajeak saihesteko. Horrela hasiko dela irudikatzen dut, eta ez dut uste etxean bukatuko denik. Hauteskunde guneak ixten direnean kalean egon behar dugu, baiezkoak irabazten badu Estatuak emaitza hauek deslegitimatut egin nahiko ditu eta mobilizazioen bidez eutsi beharko zaie”.

Albert Botran CUPeko diputatuak El Mon agerkari digitaleko elkarrizketa batean esandakoa da. Gaur egunetik begiratuta ez da samurra irudikatzea une hori iritsi daitekeenik ere, baina iritsiko da eta, Kataluniako Legebiltzarra eta Gobernuak azken urratsak ematera doaz urriaren 1ean erreferenduma egin dadin: “Nahi duzu Katalunia estatu independente izatea errepublika gisa?”. Horra herri-tarrek erantzun beharko duten galdera.

Kataluniako Gobernuaren esanetan, baiezkoak irabazten badu, urriaren 2an Kataluniako Errepublikari abiada emango zaio, joan den astean aurkeztutako Trantsizio Juridikorako eta Errepublikari Sortzeko Legea bidez –Deskonexio



Legea moduan ere ezaguna-. Ondo ez-kutuan, baina ia 10.000 hautetsontzi ere prest ditu jada Generalitateak.

Espainiak ez ei du legedi berezirik aktibatuko

Zer egingo du Espainiako Gobernuak erreferenduma saihesteko? Hori da denon ahotan dabilena eta Mariano Rajoyk bapo gordetzen duena. Hilabete luzetan asko hitz egin da hainbat aukeraz, horietatik entzutetsuena Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua da. PPK aitortu du ez dagoela berau indarrean jartzeko denborarik –lau bat hilabeteko prozedura eskatuko luke– eta, gainera, uste du une honetan ez litzatekeela komeniko.



Urriaren 1ean baiezkoko irabaziko duela ez da zalantzarik, ezezkoren gehiengoa abstentzioan baitago, kontua gehiago izango da zein partehartze emango den.

Horrela uste du behintzat Madrilgo botereen zirrikituak ondo ezagutzen dituen Enric Juliana *La Vanguardia*ko analistak uztailaren amaieran sinatutako artikuluan. Honen ustez, Madrilen “155eko Klubekoak” gogor presionatzen ari dira, baita Carles Puigdemont Generalitateko lehendakaria atxilotzeko ere, baina PP ez ei dago jarrera horretan. PPk nahiko luke Julianak Aranzadi Brigada deitzen duenarekin, hau da, zuzenbide estatuak duen sare judizial zabala erabilita, salbuespenezko ezer aktibatu barik.

La Razón egunkari eskuindarrak abuztuaren 30ean argitaratu zuenez ere, ildo juridiko hori nagusituko da eta

Espainiako Gobernuak bata bestearen atzean jarriko ditu helegiteak Kataluniako instituzioek erreferenduma egiteko lege, dekretu edo arauak onartu ahala.

Egun berean, Espainiako Gobernuaren ordezkarri Enric Millók Catalunya Radion egindako adierazpenetan lerro bera berretsi zuen: oraingoz ez da bertan beherra utziko autonomia eta ez da Puigdemonten inhabilitaziorik izango, “baina ez da erreferendumik egongo”. Millóren esanetan, 2014ko erreferenduma eta oraingoren artean badira desberdintasunak: “Oraingoan Auzitegi Konstituzionalak bost aldiz debekatu du erreferenduma”. Merezi du gogoratzea, 2014an

ere debekatu zuela azaroaren 9ko kontsulta, bezperan debekua berretsi egin zuela eta azkenean egin egin zela.

Baina oraingoan kosta ala kosta debekatuko duela dio Madrilek. Nola? Pista bat bederen utzi zuen Millók neurrien moldeaz galdetu ziotenean: “Bozketa fisikoki saihestuta, ez zait beste modurik bururatzen”, erantzun zuen. Eta nork egin dezake hori? Estatuko Segurtasun Indarrek. Baina nork? 17.000 mossoek, bestela ez da samurra salbuespen egotarik gabe milaka espainiar polizia eta guardia zibil barreiatzea Katalunian zehar bozka-ontziak bahitzeko.

Auzitegi Konstituzionalak erreferendumen aurka emandako ebazpenen

markoan hainbat neurri eska ditzake Moncloak, eta badirudi oraingoan Estatuko fiskaltza mugituko duela horretarako. Oso gaitza da fiskaltzaren eskariz epaileren batek hauteslekuetan bozka-ontzi guztien bahiketa agintzea mossoei, baina dena da posible.

Gainera, aukera honek indarra hartu zuen abuztuaren 29an PSOEko diputatu Margarita Robles epaile ezagunak berau haizatu zuenean: ez zuen polizia zuzenean aipatu, baina argi adierazi zuen justiziak delitua saihestu behar duela, eta kasu honetan erreferenduma. Adierazpen hauen bidez, PSOEk erabateko sostengua eman dio PPri aukera horretan.

Edozein modutan ez da horren samurra izango eta Vicent Partal Vilawebeko zuzendariak ezinezko ikusten du kutxen bahiketa: “Nola erretiratuko dituzte 948 udalerritan banatutako 8.000 hautesontzi? Ausartuko dira norbait bidaltzera jakinda Kataluniako poliziak defendatuko dituela eta boto emaileek ere bai? Zer egingo dute hautetsontzi bat eramaten dutenean eta beste bat agertzen denean, eta dena munduko prentsa guztia begira dagoela?”

Trapero erabaki beharrean

Kataluniatik kanpo, oro har, inork gutxi jartzen du zalantzan azken unean Espainiako Justizia obeditu beharko dutela. Juliana ere molde horretakoa da, baina zalantza tantaren bat ere jausten zaio lerro artean, bereziki Josep Lluís Trapero mossoen burua une honetan “Kataluniako pertsona indartsuena” dela dioenean: “Polizia burua da egungo pertsonaia klabea, urrian bera egongo baita hautatu beharrean. Presio itzela Santa Coloma de Grameneten hazitako gizon gogor batentzat”.

Hipotesi eta aldaera hainbat egon daiteke. Adibidez, erreferenduma egitea, baina Madrilek jarritako oztopoen ondorioz, parte-hartzea asko txikitzea. Edonola, erreferenduma egiten uztea ere arriskutsua izan daiteke Rajoyrentzat, parte-hartzeak eskuetatik ihes egin diezaioke eta, 2014an moduan. Orduan 2.345.000 botoko parte-hartzea izan zen: 1.897.274 baietz estatu berriaren alde eta 232.848 aurka.

Erroldari buruzko daturik ez dugu, baina 2015eko hauteskunde autonomikoetan 5.510.853 pertsonakoa izan zen eta orain ere antzekoa izango dela pentsa liteke. Ez da zifrei buruz hitz

» Madrilen “155eko Klubekoak” gogor presionatzen ari dira, baita Carles Puigdemont Generalitateko lehendakaria atxilotzeko ere, baina PP ez ei dago jarrera horretan

» Kosta ala kosta debekatuko duela dio Madrilek. Nola? Pista bat bederen utzi zuen Millok neurrien moldeaz galdetu ziotenean: “Bozketa fisikoki saihestuta, ez zait beste modurik bururatzen”

» Denak adierazten du gutxienez Erreferendumerako Legea irailaren 11ko Diadaren aurretik onartuko litzatekeela; eta irailaren 15ean erreferendumaren kanpaina ofiziala hasiko da

egiten, baina erreferendumak gutxieneko arrakasta izan dezan seguruenik 3.000.000ko parte-hartzea gainditu beharko luke eta baiezekoak 2.800.000 botoen langa, gutxienez. Hilaren 9an En Comúkoek egingo duten bilkura giltzarri izango da emaitzari begira, ondoren haren oinarriek onartu beharko dute erabakitakoa 12a eta 14a bitartean. Uztailaren 8an hartutako erabakian, parte-hartzeari baiezkota eman zioten, baina ez erreferenduma lotesle izateko, ekintza politiko gisa baizik.

Madril-Bartzelona, legitimitateen talka

Une gogorrenetakoak aste honetan bertan hasiko dira seguruenik, hilaren 6an edo 7an Kataluniako Legebiltzarrean Erreferendumaren Legea onartzen denean. Ondoren onartuko da Deskonexio Legea deitzen dena, izan liteke hilaren 20 eta 21ean. Baina ez dago batere argi noiz onartuko dituen Legebiltzarrak, Espainiako Legediarekin ari den kuku-gordeka horren arabera izango baita. Gerta liteke baita ere Gobernuak lege dekretuz onartzea Erreferendumaren Legea. Era batera ala bestera, Gobernuak berehala deituko du erreferenduma. Denak adierazten du gutxienez Erreferendumaren Legea irailaren 11ko Diadaren aurretik onartuko litzatekeela; eta irailaren 15ean erreferendumaren kanpaina ofiziala hasiko da. Soberanisten artean gero eta tinkoago esaten da: “Heldu da dena batera egiteko unea, onartu eta egin”. Hauetako edozein urrats ematen denean hasiko da orain arteko agindu-desobedientzia katerik larriena.

Espainiako Auzitegi Konstituzionala eta Espainiako Gobernuak prest dira jada erantzuteko. Rajoyren Gobernuak idatziak ditu jarri beharreko helegiteak, bertako iturrien esanetan, eta Auzitegiak hilaren 5, 6 eta 7an egingo du osoko bilkura. Hurrengo osoko bilkura 19, 20 eta 21ean izango da.

Erabiliko ditu Konstituzionalak bere eskumen guztiak? Hori da airean dagoen galderetakoa. Berez, helegiteak onartuta edozer gelditzeaz gain, zigorra ere jarri dezake bere aginduei kasurik egin ezean, iaz PPK horretarako erreformak bideratu ondoren. Alabaina, ez ei ditu zigorrerako ahalmenak erabiliko, barne mailan ez dagoelako nahiko adostasunik horretarako.

Urriaren 2an ikusiko dugu norantz doan Kataluniako gizartea, dituen aukerak muturrekoak dira eta: Kataluniako Errepublika edo hauteskunde autonomikoak. Soraya Sáenz de Santamaría Espainiako Gobernuak lehendakariak honakoa luzatu zion PDCATEko diputatu Jordi Xuclàri Espainiako Kongresuan: “Uste dut 10-0 irabazteko moduan gaudela”; kolpea jaso eta “kontuz umiliazioekin –erantzun zion Xuclàk– haien arrastoa ezabatzea gaitza da eta belau-nalditan irauten dute”. ■

III. MENDEKO BREXITA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Galia, 286. Maximiano erromatar enperadore berriak bagauden aurkako kanpaina abiatu zuen. 285ean, Dioklezianok matxino bagaudak mendean hartu zituen euskal lurraldeetan eta urtebete geroago Galian geratzen ziren errebolitariak txikitu zituzten. Kanpaina horretan, besteak beste, Marko Aurelio Karausio nabarmendu zen. Galia Belgika probintzia jaioa, Karausio menapioa zen jatorriz, baina inperioaren alde ari zen. Aurrez marinel lanetan izandako esperientziari bagauden kontrako arrakasta erantsita, Karausio Classis Britannica Britania probintziako itsas armadako komandante izendatu zuten. Senatuak Mantxako kanalaren alde banatako herriei erasotzen zieten piratak egozteko agindua eman zion.

Urtebete, komandanteak egitekoa bikain bete zuen, harrapatu zituen itsasontzi kopuruari erreparatu gero. Metodoari begiratuta, arrakasta ez zen hain garbia. Karausio herriak arpilatzen uzten zien piratei eta gero ontziak atzematen zituen -Erromaren mesedetan- eta harrapakina ere bai -bere buruarenean-. Piratekin tratua ere egin omen zituen, lapurtutako ondasunak



Portchester gotorlekua, Ingalaterrako kostaldean, 1786ko ilustrazio batean. Gotorlekua Dioklezianoren aginduz eraiki zuten, baina Marko Aurelio Karausio, berehala, erromatarren aurka erabili zuen.

banatzeko. Praktika zalantzarrien zurumurrua Erromaraino iritsi zen eta Maximianok Karausio exekutatzeko eskatu zuen. Epaiaren berri izan zuenean, Karausio modu nabarmenean erantzun zuen: Classis Britannicaren, inguruko piraten, Britaniako hiru legioren eta Galiako beste legio baten babesaz, Britaniako independentzia aldarrikatu zuen eta bere burua bertako enperadore izendatu.

Eta Erromaren etsai bihurtuta, lagun berriak erraz egin zituen: piktoek eta erromatarren menpean zeuden beste herri batzuek Britaniako enperadore berriarekin bat egin zuten. 288an, Maximiano probintzia ohia berreskuratzen ahalegindu zen, baina Karausio eta bere inguruan bildutakoek lortu zuten garaipena.

Erromatar Inperioaren agintea lautan banatuta zegoen: bi Augusto (Diokleziano eta Maximiano) eta bi Zesar (Galerio

eta Konstanzio). Ezegonkortasun hori baliatu zuen Karausio bere boterea egonkortzeko, harreman diplomatikoak abiaraziz, aliantza berriak bultzatuz eta Mantxako kanalaren kontrola indartuz. Txanpon propioak ere egin zituen, bere aurpegiarekin eta *Restitutor Britanniae* eta *Genius Britanniae* lelo apalekin. Eta abenturak zazpi urte iraun zuen.

293an Konstanziok Karausioaren tropak menperatu zituen Galian. Beste hiru urte beharko zituzten Britainiar uharteak berreskuratzeke, baina Karausio 293an bertan hil zuen Alekto adiskideak. Heriotzean ez zuen Erromatik bereiztea lortu, lagunak laguna hiltzea erromatar "tradizioa" baitzen. ■



ANTARCTIC HERITAGE TRUST

106 urteko bizkotxo

Antartikan, Adare lurmuturrean, Huntley & Palmers enpresak duela 106 urte fabrikatutako fruta-bizkotxo bat aurkitu dute, jatorrizko paperan bilduta eta herdoildutako metalezko kaxa batean. Adituen ustez, bizkotxo Robert Falcon Scott buru zuen Terra Nova espedizioak (1910-1913) eraman zuen bazter izoztu haietara, hainbat agiritan idatziz jasota geratu baitzen es-

pedizioak halako produktuak kontsumitu zituela. Eta gainera, duela hilabete batzuk inguru hartan Edward Wilsonen espediziokidearen akuarela bat aurkitu zuten. Arduradunen esanetan, "bizkotxoak gurin minduaren usain pixka bat du, oso-oso arina, baina horrez gain, erabat jangarria da". Scott eta Wilson espedizioan hil ziren, baina bizkotxoak iraun egin zuen. ■

Heldu eta usteldu, horra koska!



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Klimaterikoak diren fruituek landaretik askatu eta bildu eta gero ere heltzen, umotzen, ontzen, zoritzen, alegorritzen jarraitzen dute. Fruitu horiek erabat heldu gabe bil daitezke; ondoren, azkarxeago edo mantsoxeago, helduko dira. Ez klimaterikoak direnak, landaretik bildu eta gero ez dira gehiago helduko, asko jota kolorea aldatuko dute, baina ahosabairako ez dira onduko. Horra koska! Izan ere klimaterikoa grekoko *klimater*-etik dator, “koska”, hurrengo koska edo maila, alegia.

Klimaterikoek arazo handia dakarte: kontserbatzeko zailtasuna, heltzen jarraitzeko tematze horregatik. Heltze hori fruituak berak sortzen duen gas batek eragiten du, etilenoak. Gas hori fruituen ingurutik kentzea komeni da, konturatzeko denak heldu eta usteltzeko bidea hartzea nahi ez bada. Fruitu horiei luze eusteko, aireberritzen den tokian jarri. Klimaterikoak dira: sagarra (*Malus x domestica*), arana (*Prunus domestica*), ahukatea (*Persea gratissima*), banana (*Musa spp.*), meloia (*Cucumis melo*), angurria (*Citrullus lanatus* var. *lanatus*), udarea (*Pyrus communis*), tomaatea (*Lycopersicon esculentum*), mertxika



(*Prunus persica*), irasagarra (*Cydonia oblonga*), kakia (*Dyospiros caqui*), ahabia (*Vaccinium myrtillus*), pikoa (*Ficus carica*), kiwia (*Actinidia deliciosa*), abrikota (*Prunus armeniaca*) eta abar.

Ez klimaterikoak diren fruituek ere badute alde txarra: heldu arte landarean izan behar. Behar bezala heldu aurretik fruituari landarea kentzen bazaio, bere horretan geratuko da, eta ondu gabe usteltzera joko du. Ez klimaterikoak dira: masusta (*Rubus fruticosus*), laranja (*Citrus sinensis*), mandarina (*Citrus reticulata*), gerezia (*Prunus cerasus*), anana (*Ananas comosus*), limoia (*Citrus limon*),

Fruitu ez klimaterikoak ez dira gehiago heltzen behin landaretik bilduta. Asko jota kolorea aldatzen dute, baina ahosabairako ondu gabe. Argazkian, mizpira (*Mespilus germanica*).

mahatsa (*Vitis vinifera*), marrubia (*Fragaria x ananassa*), oliba (*Olea europaea*), mingrana (*Punica granatum*), mizpira (*Mespilus germanica*), mizpira japoniarra (*Eryobotria japonica*), mugurdia (*Rubus idaeus*), piperra (*Capsicum annum*), luzokerra (*Cucumis sativus*), arabisagarra (*Citrus paradisi*), kuiak (*Cucurbita spp.*), kuiatxoa (*Cucurbita pepo*), alberjina (*Solanum melongena*) eta abar. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Veza soloari buelta eman ostean ortuariak landatu edo erein baino lehen karea dantzatzea egoki?

Juan de Atxirika (Murueta)



Zalkearen lorea.

ALVESGASPAR-CC BY SA

Kaixo Juan. Veza deitzen duzun hori *Vicia sativa* dela uste dut. Gazteleraz veza eta arveja deitzen zaio. Euskaraz zalkea, eta duela gutxi esan didatenez txirta.

Lekaduna da zalkea, beraz lurra nitrogenoz aberastu egiten du. Bere ostean ondoen etorriko diren ortuariak hostoa aprobetxatzen diegunak dira: eskarola, zerba, letxuga, ziazerba...

Kareari dagokionez, jeneralean nitrogeno asko dagoen lurretan mesede handia egiten du. Dantzatu lasai. Nahi baduzu errautsa, kareharri xehetua edo kare bizia edo hila erabili.



Baratztea paristar guztien eskubide



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Hiriko mapa eskuetan, turista onen pape-
ra betetzen genbiltzan Parisen lagun bat
eta biok. Ohiko kale paristarretatik oinez
gingoazela, ordea, gure begirada berega-
natu zuen zerbaitekin egin genuen topo:
hiriko zuhaitzen jardineraz askotan hain-
bat baratzki eta lore zeuden landatuta.
Kalabaza zuhaitz horren azpian, piperra
hurrengoan, tomateak... Nork jarri ditu
baratzte txiki-txiki hauek hiriko kaleetan,
baina? Udala izan da? Herritarrek?

'Landaretu zure kalea, baimenduta dago!'

Parisko Udalak bi urte atzera martxan
jarritako proiektua da *Vegetalizer sa
rue, c'est permis!* (Landaretu zure ka-
lea, baimenduta dago!). Onartutako lege
berritzailearen arabera, edonork dauka
lorategia edo baratztea landatzeko es-
kubidea hiriko edozein tokitan: kalean,
zuhaitzen jardineretan, horma edo tei-
latuetan... Herritarrei irudimena era-

biltzeko eta toki berrietan landaketak
egiteko gonbitea luzatu die Udalak. Hel-
burua: Paris "landaretzea".

Proiektuaren bultzatzaile den Parisko
alkate Anne Hidalgok espero du modu
honetako 100 lorategi hektarea egotea
2020. urterako. Gune publikoetan lan-
daketak egin nahi dituen edonork Pa-
risko Udalean eskatu behar du baimena
lehenik. "Espazio publikoaren lorezai-
nek" landaketarako oinarritzko kita eta
haziak jasoko dituzte, eta trukean ekoiz-
pen modu jasangarriak erabiltzeko kon-
promisoa hartzen dute: bioaniztasuna
sustatzekoa eta pestiziden erabilera
ekiditekoa.

Auzotarren arteko harremanak sendotuz

Hiriaren bizi kalitateari ez ezik, hiri-
arren arteko harremanei ere onurak da-
karzkiela uste dute hiri baratzteen bul-
tztatzaileek. "Legearekin paristarrei hiri

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Irailak 6: Ordizia Euskal Jaia

Latxa ardiaren esnearen egindako gazten
44. lehiaketa; fruta eta baratzki lehiaketa;
perretxiko erakusketa; Euskal oiloen
36. erakusketa; Pirinioetako azizandaren
Gipuzkoako lehiaketa eta baserriko pro-
duktuen erakusketa eta salmenta.

Irailak 6: Urepele Bisita gidatua

Artzantza eta bortuko gaztagintza eza-
gutzeko aukera. 10:00etan Behaskoaineko
Etxolan.

Irailak 9: Gasteiz XVI. Nekazaritzako Azoka Gardena

Urrezko Zeledoiaren Plazan.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera
idatzi edo www.bizibaratzea.eus
webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

berdeago bateranzko aldaketan parte
hartzeko aukera ematen diegu, baina
horrez gain, herritarren arteko harre-
manak sortzen eta indartzen ere lagun
dezake proiektuak, batez ere auzota-
rren artean, azaldu zuen Udaleko La-
guntzaile Penelope Komitesek.

Kohesio sozialerako saiakeraren adi-
bide, kaleko jardineraz bateko baratzte
txikian topatu genuen mezu xelebrea:
"Bizilagunak: oporretan kanpoan izan-
go naiz egun hauetan. Eskertuko nuke
baratztea ureztatu eta baratzkiak jasoko
bazezenuz. Hartu eta jan lasai", zioen
karteltxoak, auzotar baten sinadura az-
pian zuela.

Hiri handiek ere pixkanaka grisetik
berderanzko bidea hartzeko aukera ba-
dutenaren seinaleztat har daiteke Pa-
risko proiektua. Gurean ere egon dira
antzeko ideiak (ikus 2.552. aleko Borra-
ja Komandoaren artikulua), ez ordea,
oraindik, udalek babestuak... ■

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK / PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

TXAKUR GORRIA SORMEN TALDEAREN LIBURUXKA

2

Atea irekiko ez lidaketen pertsonen etxean leihotik sartu nintzenekoa

Izenburu hori du Txakur Gorria kolektiboak 2016an argitaratu zuen liburuxka honek. Collage irudiak eta kontakizun laburrek osatzen dute kontakizunaren haria, Malen Ame-nabar, Mariñe Arbeo eta Nerea Ibarzabalek jositako istorio honetan. Horrela dio kontra-azalerako aukeratutako ipuinak: *Etxe au-rreko eraikinaren leihoetara begira jarri naiz, norbere dortokari begiratzen zaion jakin-mi-nez –edo nitxo ilara bati–. Arropak, usainak, errezelak, dena irristatzen da leihoetatik behe-*

ra, kanpoko munduari etxe batean pixkana-ka usteltzen ari den bizitzaren berri emateko. Balkoitik eta pijaman aztertu ditut leihoak, ezkutatu gabe, bizilagunek ere koaderno ma-rroidun pertsonaren bizitza irudikatzeko auke-ra berbera izan dezaten, ez dezaten errezel bat ustekabeen mugitzen ikusi eta beldurtu. Eta horrela neure buruari ere sinestaraziko diot beraien bizitzak asmatzen ibili naizela, eta ez kuxkuxean. ARGIA Jendearen artean bina liburuxka zozketatuko ditugu irailean zehar.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



TXAKUR GORRIA

txakurgorria.eus

txakurgorria3@gmail.com

#sormena
#kultura
#literatura
#autoeraketa

Iraileko sariak

1



Tribial Feminista
2 mahai-joko

2



Txakur Gorria
2 liburu

3



Zein da Zein?
Elefante Txuria diskoa
5 CD

4



Joxemi Zumalabe
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/guinea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Zoo(i)logikoaren analisia



AXIER LOPEZ



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Gorka Bereziartua Mitxelenak, Boli Gorria bezala ere ezaguna, asteroko bere analisia estreinatu berri du lanera bueltatzarekin batera. Aldizkaria goitik behera zintzo bezain zorrotz errepasatzen duen irakurlearentzat ez naiz ezer berririk kontatzen ariko, dagoeneko ohartuta egongo baita ARGIAko aldaketa guztiez. Dena dela ere, ongi etorria eman nahi diot txoko honetan “Fauna Publikoa” sail berriari.

Marraztu ditu Bereziartuak lehen letrak tinta gorritz kurtso berriko aurrenengo alean. *Iletik tiraka* tituluarekin egin dio kosk sare sozialetan ezagun den aipu bati. Gloria Vazquez Zaurazko parekidetasun zinegotziak Anna Gabriel CUPEko parlamentariaren orrazkeraz egindako adierazpenei hain justu. Hortik joango baitira tiroak. Hedabideetan egindako adierazpen bat oinarri hartuta analisia egitea. Azalekoa izan daitekeenak sakonean duena aztertzea.

“Deklarazioen gehiegikeria dago gure prentsan, eta hondoko arazoari baino gehiago begiratzen zaio gaur egun esa-

ten denari”, dio kazetariak. “Esaten dena vs egiten dena jarri nahi dugu mahai gainean zutabe modura idatzitako atal honetan, saltsa bilatu”.

Manuel Delgado antropologoaren *El animal público* liburuaren izenburua izan da Fauna Publikoa atalari izena jartzeko inspirazio iturri. Azken batean, adierazpen eta pertsonaia publikoak izango ditu Boli Gorriak jo-puntuan. Fauna horretan murgilduko da astero gustu handiz kazetaria. Aitortu digu, gainera, aspalditik zebilkiela bueltaka buruan maiztasun jakin batez astekearian atal bat elikatze asmoa. Eta “Panorama” atalaren inguruan erredakzioan gogoeta egiten ari zirela azaldu zuen taldean bere nahia.

Ez dut zalantzarik “Fauna Publikoa”k jokoa emango duela, Bereziartuarena ez baita tinta azkar bukatzen zaion luma horietakoa. Punta zorrotza izan ohi du normalean, eta erreparo handirik gabe sartuko du eztena, ziur naiz. Kazetari-tzak ez alde bateko eta ez bestekoa izan behar duela gehiegitan entzuten dudana garai hauetarako aproposa. ■

ARGIAko kide egiterakoan eman dituzten arrazoiak

“Euskarazko edukiak eta herri mugimenduaren gaiak zabaltzeko, zein gertatzen dena hobe ulertzeko erreminta paregabea iruditzen zaidalako”

Markel Brouard (Bilbo)

ARGIAkoa

Sarean arrantzatuak

Andoni Urzelai Eraña

@andoniurzelai

Abuztu amaierako plazer bakarretakoa buzoian @argia-rekin topo egitea da.



Markatu gorritz agendan urriaren 7a: Argia Eguna Gasteizen!

Larunbatez, egun osoan zehar eta gauari orduak kenduz, Gasteizko Alde Zaharrean ez da saltsarik falta-ko laugarren Argia Egunean: ibilbide gidatua, bazkari herrikoa, kontzertuak... hurrengo asteetan izango duzue egitarau zehatzaren berri.

Xabier Olarra, itzultzailea

“IRAKURLEAK ESAN DEZAKE LIBURUA TXARRA DELA, BAINA HORI EZ DA ZURE KULPA”

Literatura Unibertsala sailarekin batera sortu zen Igela argitaletxea, 1989an. Hiru tolosar ziren, bi irakasle –Joseba Urteaga eta Xabier Olarra– eta grafista bat. Ikasleei literaturan zaletzeko eman behar zizkieten testuak ekarri nahi zituzten. Irakurketa arineko liburu eskerga –nobela beltza, besteak beste– eta klasiko andana itzuli dituzte harrezkero. James Joyce idazlearen *Ulises* nobelaren inguruan jardun dugu Olarrarekin, nobelaz eta itzulpengintzaz. Bera dugu literatur klasiko honen itzultzailea. XX. mendeko literaturaren gailur gorenetakoa bat. 2015eko irailaz geroztik *Ulises* euskaraz irakur dezakezu.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ulises obsesioa bihurtu zitzaion Xabier Olarrari. Bi urte iragan dira nobela Igelak argitaratu zuenetik. Alta, oraindik ere, lan erraldoiaren ondorioak bizi ditu: “Hainbeste lan hartuta denboraldi batean, deskantsua merezia nuen nonbait. Geroztik ez naiz ezer seriorekin hasi, lankideek itzultzen dutena begiratzen dut gehienbat. Editorialeko funtsezko lana denez, bada, horrek ekarri nau zuzentzera, iritzia eta aholkuak ematera”, esan digu solaskideak.

Zer da *Ulises* Xabier Olarraren bizitzan?

Hiru urte eskaini dizkiodan liburu bat. Lehenbiziko inpresioa da, *Ulises* alde batera uzten duzunetik eguneroko bizitza asko luzatzen dela. Hau da, lan horrek hiru urtetan eguneroko 24 orduak kentzen badizkizu, nolabait esateko, behin hori bukatu duzunean, liburuaren presiorik gabe, sentitzen duzu badagoela denbora beste edozein gauzatarako.

Lan luzea eta saiatiaren emaitza berriz, nola baloratu duzu?

Bada, egia esan, inor gutxik espero zuen,


baina irakurle batzuk baditu. Hotz-hotzean pentsatuta, salmenta irakurle edota erosleen aurreikuspenen paretsuan joan da, eta ez da gutxi. Azkenean atera genituen nobela beltzak, hain irakurketa erraza zutenak, haiek halako hiru saldu ditu *Ulises*-ek. Beraz, publikoak bazuen irrika, edo agian guk sorraz dugin nahikaria izan da. Nik esango nuke, gutxienez, *Ulises* euskaraz ikusteko gogoaz bazegoela.

Euskal literaturak *Ulises* behar zuen, alegia.

Ikuspegi linguistiko eta literariotik hartu da inpresio hori. 1979n, *Ulises* katalanez atera zenean, adibidez, Joxe Azurmendik halako zerbait esan zuen. Alegia, une hartan ez ote zen itzuli behar galdetu zuen nolabait. Literaturari alde guztietatik bide eman behar zitzaiola esan zuen, UZEI (Terminologia eta Lexikografia Zentroa) egiten ari zen normalizazio lanaren bidean lagundu aldera. Katalanak urrats handia egin zuela adierazi zuen Joxe Azurmendik hizkuntzaren normalizazioaren bidean, *Ulises*-i esker.

Garai hartan atzerriko literaturaren itzulpenaren inguruan hainbat ezbai zebilen. *Ulises* euskaratzea erronka zen.

Hor nonbait. Edorta Jimenezek helarazi zidan mezu bat esanez, euskara ez zela benetako hizkuntza normalizatua *Ulises* euskaratua izango zen arte. Baina, hori bere interpretazioa izan zen. Joxe Azurmendik ez zuen horrelakorik sekula esan. 1979. urte aldean, ezbaian zegoena hauxe zen: “Zein arloan jarri behar da indar gehien?” Guk, ordurako, Gabriel Arestik eta bere belaunaldiko besteek literaturaren arloan ireki zuten bidetik egin beharra ikusten genuen, horrek zabalduko zuela bidea. Aldi hartan ere aztergai zen, hizkuntzaren alorrean UZEI egiten ari zen bidetik, nondik jo. Bidea hobeto eta gehiago urratzeko modua eztabaidan zegoen. Nolanahi ere, pentsatzen zen itzulpen katalanak normalizazioari bultzada eman baldin bazion euskaraz ere hala izan zitekeela. Egia esan, 1979an literatur arloan ez zegoen behar adinako kilometrajea eginik *Ulises*-i ekiteko. Bidean geratua zen eta halako batean guri



bururatu zitzaigun “auzi” horri erantzuna ematea.

Nobelaren inguruan pasadizo harrigarri bat dago. Literatura solas-gunetan esan izan da Gabriel Arestik itzuli zuela. Pentsatzeak berak erabat zurtuta laga nau. Sinesgaitza dirudi...

Eta ez zuen ziur aski itzuliko. Anekdotatik du gehiago egia baino, nik ere ez dut sinesten. Aresti aritu zen T. S. Eliot-en *Four Quartets* (*Lau Quartetto*) itzultzen, [Giovanni Boccaccio-ren] *Dekamerone tipi bat* eta beste. Egiari zor, Arestik sekulako itzulpenak egin zituen, baina ez dut uste hori egia izan litekeenik.

Areago, Guardia Zibilek kontrol batean *Ulises* nobela euskaratua –edo parte bat gutxienez itzulia– kendu ziotela pentsatzea are sinesgaitzagoa da.

Arestiren *Ulises*-en inguruan zabaldua Jon Juaristik aipatua da, antza. Hari egotzi diote pasadizoa. Hala ere, Juaristik ez du kontrol batean gertatu zela esaten; esan ohi du poliziak Arestiren etxea erregratru zuela eta testua eraman zutela.

Euskaraz dago gaur egun. Zer da euskal literaturgintzan?

Hor dago, itzultatiko beste 8.000 lan horien artean. Guk apustu egin genuen eta euskarazko literatura gailur horretaraino igo da. Edo kritikek behintzat jarri dute gailur batean, panorama horretan leku hartu du. Hain liburu aberats eta zailtzat jotzen dutenez, eta guretzat ere hala zen, bada, pasa beharreko lekura pasa da, zaila izanik ere: literatur zaleen txokora pasa da, mitoa bilakatu den liburu baita, euskarari berezko estatus bat ematen dio, literatur zaleen ikuspegitik haien nahia bete dugu behintzat.

Zein dira liburuaz jaso dituzun oihartzunak? Irakurri al da?

Kasuak bakanak dira irakurri eta zer-bait esan dutenak. Badago ere “bigarren bueltan ekin behar izan badiot ere, hasi naiz serio-serio irakurtzen” esan diguna. Edorta Jimenezek esan zuen “hasi naiz, eta beste baterako utzi dut”. Hala ere, ez dago pentsatzerik, horrek beste nobelek funtzionatzen duten bezala funtzionatu ez duenik. Alde horretatik, nik ez daukat

kexarik. Gure prentsan bizpahiru aipu agertu ziren, izan ere, *Ulises* nobelak, lehendik ez baduzu irakurria, prudentzia pixka bat eskatzen du.

Gure inguruan J. M. Valverderen gaztelaniazko edizioa ezagutzen genuen, bitomotan. Hura ezagututa, zuen edizioa “adreilu ederra” da. Kontent egoteko modukoa da.

Liburu ederra da estetikoki. Jose Mari Valverderen edizioa merkea da. Gaur egun, horrelako margenekin ez luke inork argitaratuko. Ez hori bakarrik. *Ulises* 781. orrialdean bukatzen da, hemen bukatzen da [Olarrak liburu eskuetan seinatu digu liburuaren zabalera, 1.017 orrialde ditu], horretarako dauka bigarren hari bat. Valverdek esaten zuen ez zeukala inolako zentzurik oharrak jartzeak. Izan dira hori pentsatu dutenak. Nik laburtu dudana da *Ulysses Annotated*. Pertsona batek pasa bazuen bere bizitza osoa *Ulises*-en oharrrak antolatzen, ez bakarrik hori, baizik James Joyce-ren beste liburuenak ere bai, aintzat hartzeko modukoa da.

Ni *Ulises* irakurtzean, itzuli baino askoz lehenago, sarritan trabatzen nintzen, ez nintzen VI. kapitulutik aurrera pasatzeko gauza. Gazte garaian, liburua irakurtzen hasi eta salto egiten genuen Molly Bloom pertsonaiaren monologo ospetsura. Ingelesezt lehen aldiz irakurri ahal izan nuenean, edizio ohardun bat irakurriz lortu nuen. Valverdek bere edizioa ateratzean, oharrek traba egiten zutela zioen, jakina, oharrak itzultzea eta gehitzea lan itzela baita. Kontua da, nire ustez, Valverdek itzuli eta irakurleari bota ziola obrak berekin daraman pisu guztia. Horrekin lotzen da *Ulises* izatea irakurle frustratu gehien sortu duen obra.

XX. mendeko nobela esanguratsuenetariko bat da. Lanak ematen ditu irakurtzen. Horregatik, 3.000 ohar baino gehiago erantsi dizkiozu.

Bai, eta hori egiteko badago nahi adina gida. Batzuek diote liburua irakurri behar dela datorren bezala, inongo gidarik gabe, sartu eta aurrera. Beste batzuek diote, "nondik nora noan jakinda ziur aski errazago iritsiko naiz azkenera". Horregatik bukaeran eske ma batzuk daude, Stuart Gilbert-enak. Joyceren exegeta bat. *Odisea* obraren berrinterpretazioa da, XX. mendekoa, *Odisearen* azalpena ematen duena. Hori argi izan behar du irakurleak, nondik nora doan jakiteko.

Bestalde, adibide baterako, James Joycek Featherbed mendia aipatzen du, baina mendi horren nondik norakoak ez ditu argitzen: mendiak zer balore zuen irlandarrentzat? Bertan, XIX. eta XX. mendeen artean milaka pertsona bildu omen ziren, independentziaren bidean. Pasarte hori argitzeko edizio soil bat beharko litzateke. Guk erreferentzia asko eman dugu; hala ere, beste asko gelditu dira ezkutuan. Nobelaren irakurketan oztopo ez egiteko, oharrak tamainan eman ditugu.

50 urte pasa eta gero, berriz itzuli behar dela pentsa al daiteke?

Ziur aski, bai. Har ditzagun, esaterako, beste liburu batzuk: duela 25 urte itzulitako [Francis Scott Fitzgerald-en] *Gatsby Handia* eta [Herman Melville-ren] *Bartleby eskribatzailea* nobelak iaz berriro genituen, lehena nik eta bigarrena Juan Garzia Garmendiak. Itzuli genituenean ez zegoen Hiztegi Batua,



» "Itzulengintzan traizioa egin behar da, baina jakin behar da ongi egiten"

esaterako. Bakoitzak genuen euskararekin eta irakurtzean barneratzen genuenarekin aritzen ginen, ez genuen beste irizpiderik. Itzulpengintza aurrera joan den heinean, baliabide gehiago ditugu, beraz, orain 25 bat urte egindako itzulpenak bere horretan argitaratzea itsusi samarra iruditzen zait, gu saiatzen gara halako liburu bat agortzen bada berri-tzen eta gaurko egoerara ekartzen. *Ulises*-ekin ere ziur aski ez gara alor guztietara iristeko gai izan. Beraz, hemendik 50 urtera *Ulises*-ekin gertatuko da beste bi horiekin gertatu den bezala, klasiko guztiekin gertatzen da hori.

Zuk esana da: "Itzulpenak badu abantaila bat sormen lanaren aldean, hobetu daitezkeela". Irakurleek barneratuta dute hori?

Irakurle gehienek pentsa dezakete gure lana kopia-tze hutsa dela eta gure buruari inportantzia ematen diogula. Baina askotan gertatzen da, testuak datozen bezala emango bagenu, dezenteko deskalabrua litzatekeela. Itzultzea testuaren garaiko egoerara egokitzea da, bere garaiko testuingurua nola eman

» "Euskaraz argitaratzeko ez balitz, ez nukeen argitaletxe bat sortuko"

asmatzea. Idazketaren ahalegin horretan asmatzea da itzulpenaren funtsa.

Gabeziak gabezia, euskararena hizpide, generoa eta beste, hitanoaren erabilgarritasuna mesederako izan da *Ulises*-en.

Euskarak baditu bere abantailak eta desabantailak. Desabantaila da esaterako, femeninoak ez izatea marka hitzetan; aldiz, aditzetan badauka, horrek erraztu egiten du irakurketa. Hau da, hitanoa zergatik da *Ulises* nobelan hain inportantea? Bada, norberak bere buruarekin egiten dituen elkarriketa horiek euskaraz hika eman daitezkeelako. Euskaldunek hika erabiltzen zuten bakarka mintzatzean. Hartaz, narrazioetan tar-tekatzen diren pasarte horiek nabarmendu daitezke, eta beste hizkuntzetan ez. Hitanoa jartzean, badakizu pertsonaia hori pentsatzen ari dela, horretan abantaila ematen digu hika formak.

Molly Bloomen monologoak eman du zer esana beti, eta zuk euskaraz emandakoak areago nonbait.

Hikan emana dago, eta emakumeari da-

gokionez, noka. Koldo Mitxelenak esaten zuen, eta nik hainbat buelta eman diot horri, emakumezkoak ere bere buruari zuzenean ari ez zenean *toka* egiten zuela, erabilera neutroan edo ez-markatuan, alegia. Bere buruari ari izanez gero, demagun bere buruari ispiluan zuzenean, “hi aizan, eroa”, esango zuen. Beraz, badirudi, printzipioz, toka beharko zuela monologo horrek. Nik, hala ere, pentsatu nuen, emakume baten goizeko ordu-bietako burutazioak izanik, bada intimitate horretan, bera bere buruarekin ari dela, justifikatuta egon zitekeela noka aritzea; eta orduan erabaki nuen hala egitea, besteak beste, garaiak ere –emakumearen berdintasunerako bideaz ari naiz zehazki– horrela datozelako. Maila sozialean araua toka izatea patriarkalismoarekin lotua egon daiteke seguru aski, hori izango zen neutroa, baina aldaketak bestalderantz doazenez... Dena dela, liburuaren sarreran arazo honi eta beste gai korapilatsu batzuei emandako irtenbideen berri zehatzagoak emanak daude.

Ulises-en eragina izugarria izan da. Badira harrera ona egin ziotenak, eta estu hartu zutenak...

Batzuek diote liburua aspergarria dela, ez duela ezertarako balio, horrelako iritzi deskalkifikatzaileak badira. Juan Benet idazleak zioen James Joycek “barne monologoa asmatu zuen, balorerik ez duen molde aspergarria”. Nik uste, oro har, barne monologoei garrantzia eman zaiela literatura. Horrelako iritziak oso jende “xelebrea”-renak dira, bere burua nabarmentzea maite dutenenak. Literaturan autoritateak T. S. Eliot, García Márquez edota Faulkner dira, beraz, Benet horien imitatzailerik denez gero, bigarren eskuko patenteduna, zer ari da kritikatzan?

Zer da hizkuntza zure bizitzan?

Gauza asko. Besteak beste, mundu hau ulertzen saiatzeko modu behinena, harremanetan horrek bereizten gaitu beste animaliegan. Partikularki, ene bizitzan, euskara, eta etxetik hasteko, etsaien kontra eta sikatearen kontra, eta kristo guztiaren kontrako mintzoa izan da. Gure aitona-amonak, aita-ama eta konpainiak mantentzea erabaki zuten eta horrek bere karga politiko ideologikoa eta sentimentalak eman zizkion euskarari. Hizkuntza modu batean bizi du bakoitzak eta guk horrela bizi izan dugu. Behinola, lagun batek esan zidan, “zergatik ez duzue erdaraz argitaratzen?”. Bada, horretarako beste batzuk daudelako. “Nik euskaraz argitaratzeko ez balitz, ez nukeen argialetxe bat sortuko”, esan nion.

Euskarak itzultzaileak behar zituen.

Pott bandakoek esaten zuten haiek idazten hasi zirela, beraiek ez zituztelako aurkitzen euskaraz nahi zituzten liburuak. Bada, gu ere, beste modu batez, euskaraz aurkitzen ez genituen liburuak itzultzen hasi ginen, beste aukera eta beste bide bat da, lotsatiagoa ziur aski. Sorkuntzan zu nabarmena zara, idazle zaren aldetik, itzulpengintzan erantzukizuna ez da zurea. Erantzukizuna idazlearena da, irakurleak esan dezake liburua txarra dela, baina hori ez da zure kulpak.

Topikoa da, baina zuk nola bizi duzu *tra-duttore traditore* delakoa?

Traizioa egin behar da, baina jakin behar da ongi egiten.

Etorkizunean, egungo idazleen literatura imitatu beharko da?

Nik uste baietz. XX. mendean behar zen literatura egin dute gure idazleek, eta ez soilik euskara landu dutelako. Alegia, lortu dute ere beste hizkuntza handietatik, hala nola espainieratik edo frantsesetik etorritako korrante literarioak euskarara ekartzea, eta orain elkarrekin goaz beste hizkuntzekin. Hori 60ko hamarkadan gertatzen hasi zen, orduko autore horiek egiten hasten dira Europar egiten zenaren parekoa. *Egunero hasten delako* [Ramon Saizarbitoria-aren nobela] Frantziako *Nouveau roman* delakoaren ildoan, eta ondoren *100 metro* bi adibide dira. Iragan mendean nahiz honetan egiten ari den euskal literatura munduko literaturaren parekoa da, ez bakarrik euskararen garapenari dagokionez, literaturan ere izugarritzko urratsak eman dira gure idazleei esker. Problema bakarra da, gure seme-alabek zer estimu ematen dioten horri, baina beno, baliabidea hor dago, hor dute tresna.

Tresna horrek eragin al du gazteengan?

Euskararen munduan eragin gutxi du.

Euskal idazleek aintzat hartu dute literatura unibertsala euskaraz?

Batzuek bai, baina minoria dela uste dut. Argitaratu dena funtsezkoa da, baina euskal idazleek horren parte handi bat irakurria izango zuten gaztelaniaz edo beste batzuek frantsesez. Gero euskaraz argitaratu da, baina salbuespena da idazlea euskaratutako testu horien irakurlea izatea. Baina, belaunaldi gazteetako idazleek badute aukera, behar bada, irakurri ez duten libururen bat edo autoreren bat euskaraz irakurri ahal izateko. Zer egingo duten? Gutxi batzuek jarraitzen dute eta gehienek ez, baina nire inpresioa baino ez da. ■

Euskara haur eta gazteentzat!

MATRIKULA ZABALIK

www.gazteola.eus

Gazteola*
Haur eta Gazteak

Bilbo erdian

- Urtean zehar: euskara eskola
- Oporretan: tailerrak, campusak, jolasak, udalekuak, barnetegiak...

Oki Moki

“Asmo handirik gabeko musika zintzoa da gurea”

Berlinen bata eta Bartzelonan bestea. Hainbat urtez kanpoan izan dira Paula Estévez eta Aritz Aranburu, ilustrazio eta diseinu kontuetan sartuta. Egun, elkarrekin bizi dira Getarian, eta etxean bertan ekin diote Oki Moki proiektuari. *Ocean Breeze* lehen diskoa argitaratu zuten iaz, pop melodia itsaskorrek gitarra zakarrekin nahastuta.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Klase guztietako fanzinez, komikiz eta kasetez josita daude Dabadabako standak. Igande eguerdia da, ekainak 11, eta iluntzera arte luzatuko da Guillotina Festa, Donostiako autoedizio topaketa. Jendea mahaiz mahai ari da saltsan. Batzuk, bezperako ajeari buelta eman nahian, bainilazko irabiatuari zurrupaka, besteak, alaiago, marianittoa eskuan. Ezin panorama aproposagoa Oki Mokiren zuzenkorako, taldekide biek lotura estua izan baitute betidanik autoedizioaren munduarekin; are, Paula Estévez bera da jaialdiaren antolatzaileetako bat. 13.30ak aldera, Bilboko Niebla Fascistaren ondoren igo dira eszenatokia, eta berrogei minutu pasatxoan xehatu dute diskoa, pieza berriren bat barne. Lau egun lehenago, areto bereko terrazan eserita erantzun zituzten galderok.

Otsailean hasi zineten zuzenekoak ematen, eta ordutik asko jo duzue. Ze sentsazioarekin zabilzate?

Kostatu zaigu soinu egokia topatzea. Bateriak pedal batean grabatuta ditugu, eta oso desberdina da entsegu lokalean edo eszenatoki batean entzuten duzuna.

Lehen bizpahiru kontzertuetako soinua desastre samarra izan zen. Zikin puntu hori bilatu nahi genuen, baina pasatu egin ginen: bateriek, amplifikatzean, soinu kaotiko samarra ateratzen zuten. Beraz, berriro grabatu genituen, garbiago, eta geroztik erosoago gabiltza.

Bateria jotzaile bat hartzea baztertzen duzue?

Ez dugu baztertzen. Hala ere, espiritu praktikoa daukagu. Frantzian era horretako talde asko daude: bi instrumentuz osatuak, ahots ekipoa bozgorailuetan integratuta daukatenak. Ingurura egokitzen dira, entxufe bat dagoen edozein tokitan jo dezakete: ate izkinan, eszenatokiaren alde batean, kale bazterrean... hori gustatzen zaigu.

Sentsazioa daukat Oki Mokiren berri ahaztu dela batez ere. Ez duzuela promozio handirik egin, alegia.

Ez bereziki, baina orain arte bestelako proiektuetan egin duguna baino askoz gehiago. Facebooken kontu bat egitea, tarteka argazkiak igotzea... hori promozio lan handia da guretzat. Egia da, hala ere, bilatu gabe iritsi zaizkigula kon-



tzertuak, elkarriketak eta artikuluak. Bandcamp bidez abesti batzuk erosi dizkigute AEBetatik, eta hori sekulakoa da. Munduaren beste puntan zuk egiten duzunarekin flipatzen duen pertsona bat dagoela jakitea betegarria da, eta lanean jarraitzeko motiboak ematen dizkizu.

Eta entzuleen aldetik nolako feedbacka jaso duzue?

Jo ditugun kontzertu apurretan feedback ona jaso dugu. Ematen du Oki Mokiren duo formatu horrek lagundu digula jendearengana iristen, eta gus-tagarriak direla udako egun alaietako espiritu egindako kantuok. Lehengoan *zapatilla* zale batek esan zigun kasetea hamar aldiz entzun duela. Espero ez genuen jendea entzuten dizkiogu halakoak. Badakite ze mundutatik ga-



tozen, eta horregatik entzuten dituzte gure kantuak aurreiritzirik gabe.

Nola sortzen dituzue kantuak?

Normalean, aurrena melodia bat ateratzen dugu, eta mugikorrarekin grabatu. Zati horretatik tiraka pixkanaka kantua osatzen dugu, letra azkenerako utzita. Ze soinu bilatu edo nondik jo garbi duzuean, dena da errazagoa. Estiloa oso zehaztuta daukagu, biok dakigu zer nahi dugun.

Dena hain zedarrituta edukita ez al dago arriskurik konfortean erortzeko?

Bestelako talde bat bagina, esperimentalagoa edo, izan zitekeen negatiboa estiloa hain zehaztuta edukitzea. Konfortetik ateratzeak aberastuko gintuzke, kantu bakoitza litzakeelako abentura bat. Zerbait sortzen hasi eta non buka-

tuko duzun ez jakitea oso interesgarria da sarri. Aldiz, daukagun talde kontzepturako formula ona da hau. Sortze prozesuan sorpresa gutxiago izaten ditugu, baina dena da errazagoa. Asmo handirik gabeko musika zintzoa da gurea.

Musikaz harago, sumatzen zaizue afinitate hori. Biak zarete diseinatzaile grafikoak, biak zatozte autogestioaren mundutik...

Bai, mundu beretik gatoz, eta sortzerakoan oso antzeko gustuak dauzkagu. Horrek ez du esan nahi gatazkarik izan ez dugunik, baina oro har, biok gara lasaiak, eramanerrazak eta malguak.

Zertan izan dituzue gatazkak?

Adibidez, bideoklipetan gure burua zenbateraino erakutsi erabakitzerakoan. Gu beti atzeko mundu horretan ibili

gara, kontzertuak antolatzen, publiko orokorretik aparte, beti bigarren planoan... eta gure burua asko erakustek bertigo puntu bat ematen digu. Orain, ordea, bideoen bat egitean sortu izan dira tentsioak, ze batek agian aurpegiaren planoak bere horretan utzita argitaratu nahi du, eta besteak nahiago du badaezpada aurpegiak ezkutatzea. Baina ondo daramagu kontua. Oki Moki bion proiektu pertsonala da, etxean sortua eta etxean grabatua. Bideoak ere bion artean egin ditugu, eta, hortaz, logikoa zaigu biok azaltzea. Pertsonaren irudia eta taldearena batera doaz. Gainera, guretzat arrakasta ez dago ospearekin lotuta, ezta salmentekin edota diruarekin ere. Musika lotzen dugu jendea ezagutzearekin, ezezagunen etxetan lo egitearekin... Horrela esanda agian handikeria ematen du, baina askotan sen-

titu dugu –(Aritzek) Arrotzak taldearekin Frantzia zehar egindako biran, adibidez– badela oraindik gizaterian esperantzarik, dena ez dagoela galdua: izugarri zaindu gaitu jendeak. Horrek betetzen gaitu, eta ez kasete pila saltzeak, edo halako aldizkaritan ateratzek, edo Facebook-en “atsegin dut”-ak jasotzek.

Koherentzia estetiko handia dute bideo-klipek. Irudiak oso ondo ezkontzen dira musikarekin.

Azken urteotan utzita genituen ikus-entzunezkoak, eta probatzeko gogoz genbiltzan. Kantu oso bisualak iruditzen zaizkigu. Udan grabatu genituen, eta biltzen dute udako aldarre alai hori. Izan balitz barrura begirako estilo ilunago bat, zailagoa litzateke bideora eramatea. Askok gustatzen zaigu post-punka, egin genituen kutsu horretako kantu batzuk hasieran, baina azkenean tonuz aldatu genuen. AEBetan asko dira kutsu hori duten taldeak.

Minor Threaten gitarrak eta Cloud Nothingseko melodiak etorri zaizkit burura zuek entzun ahala.

Bai, AEBetan talde pila ederra dago punk mundukoak izan arren amaitu dutenak zerbaite poperoagoa egiten, oso musika alaia eta melodikoa. Euskal Herrian ez dugu halakorik ezagutzen. Badaude garaje-pop egiten duten batzuk, baina ez datoz punk mundutik. Hemen bi muturretan bizi dira popa eta punka: punk munduan melodia txikiren bat sartzen baduzu, betiko aurreiritziak ateratzen dira; eta, aldiz, pop munduko taldeak beti aritu izan dira arrakasta bila, kutsu komertzial hori izan dute, lurrazpiko eszenatik urrun. Gu, oster, gaztetxe girotik gatoz, eta nahi izan dugu zerbaite melodikoa eta alaia egin, baina jarrera underground hori eutsiz. Florida inguruan badago espiritu hori: hartu gitarra akustiko bat eta bi perkusio zati, sartu garaje batean eta sekulako festa egin, jende guztia zerbezak burutik behera botaz. Izan ginen halako jaialdi batean: *nerd* jende lepo, denak zorabiatuta kantatzen. Eta pentsatzen genuen: “Hau baino punkyagorik!”. Noski, musikalki ez zen hemengo punk *matxo* hori. Justu kontra-koa. Askok melodikoagoa eta alaia gozatu, eta letra politikoak baldin bazituen ere, bizipoza kutsatzen zuen, nihilismo auto-suntsitzailea beharrean.

» “RIP, Eskorbuto eta abarren punk nihilista sartu zen indartsu hemen, beste talde batzuk popera gerturatzen ziren arren”

» “Guretzat arrakasta ez dago ospearekin lotuta: musika lotzen dugu jendea ezagutzearekin, jende ezezagunaren etxeetan lo egitearekin...”

» “Gero eta jende gehiago animatzen da fanzineak egitera, baina bestalde, kontuak badu moda puntu bat ere”

Egia da aipatzen duzuen jarrera hori ez zela askorik zabaldu inguruotan –Jotakie edo M-ak aipa litezke agian–. Zergatik izan daiteke hori?

Euskal Herrian goizetik gauera igaro ginen Ez Dok Amairuko kantautoreetatik RRVra. Egia da bazirela talde batzuk –Zarama edo Hertzainak, adibidez– tarte-koa popera gerturatzen zirenak. Baina RIP, Eskorbuto eta abarren rolo nihilista izan zen batez ere indartsu sartu zena, eta popaz ari bagara, hurrena bururatzen zaizkigun taldeak La Oreja de Van Gogh eta tankerakoak dira.

Inguruotako ze talde sentitzen dituzue gertuko?

Musikalki, inor gutxi. Jarrera aldetik, berriz, aipa genitzake gure lokalean ibili diren taldeak: Petra edota Erroma. Edo Bilboko Killerkume. Getariako gaztetxean beti saiatzen gara apustu arriskatu samarrak egiten dituzten musikariak programatzen, eta Bilbon Killerkumeko

biak ere ildo horretako kontzertuak antolatzen ari dira. Horiez gain, oso ongi moldatzen gara Vulk eta Sofa taldekoe-kin, besteak beste.

Zer dela eta ateratu duzue kasetea?

Sareko plataforma bidez entzuten da musika gaur egun, CDA ere zaharkituta gelditu da... Gu kasetean hasi ginen musika entzuten. Gaztetan jende ezezagunarekin kaseteak elkarbanatzen genituen, posta bidez. Beranduago, Kriston Zintak zigilua sortu genuen Arrotzak taldeko batzuek, eta lokalean entseatzen aritzen ziren hainbaten grabaketekin 50-100 kopiako edizio txikiak argitaratzen genituen. Azken batean, kasetea formatu analogiko bat da, ibilbide luze-koa, fisikoki zure lana betirako izozteko moduetako bat. Badu kolekzionista kutsu hori eta, gainera, merkea da.

Paulini Records zigilua ere sortu duzue. Ze asmorekin?

Kontzertuetara maleta txiki bat eraman ohi dugu, fanzine, zinta eta abarrekin, eta aurrerantzean sortzen dugun materiala Paulini Records estalkiarekin argitaratu nahi dugu. Egungo baliabideekin oso erraza da norbera izatea musikari, bideogile, produktore... Trap musikaren mundua da adibiderik garbiena: jendeak ikusten ditu Youtubeko lau tutorial eta gai da horrekin sekulako bideoklipak egiteko.

Hortaz, garai onak al dira *Do it yourself* mugimenduarentzat?

Igandean [ekainaren 11ri buruz ari da] Guillotina Festa antolatu dugu hemen-txe, Dabadaban, eta ohartzen gara gero eta jende gehiago animatzen dela fanzineak edo bere musika autoeditatze-ra. Baina, bestalde, kontuak badu moda puntu bat ere. Bat-batean topatzen duzu norbaite fanzine bakar bat egin duena horretarako diru laguntzak eskatuta. Edo bizi estilo oso altuko jendea autoedizioaren munduan sartuta. Edo igarotzen zara Kursaal paretik eta ikusten duzu klase horretako azoka bat antolatu dutela. Instituzioek ere oso bere egin dute ekitaldietan detaile txikiak zaintzeko joera hori... Baliabideen aldetik garai onak dira *Do it yourself*-arentzat, baina badago joera mugimendua esanahiz hustu eta azalekoarekin gelditze-ko ere. ■

MANUEL BARTUALEN TXIO HARIAK

FIKZIO BIRALAREN AUKERAK

ERAKUSTEN DITU

Twitter ez da gauza bera izango Manuel Bartualek abuztu amaieran publikatu zuen hariaren ondoren. "Oporretan nabil duela pare bat egunetik, hondartzatik gertu dagoen hotel batean. Dena ondo zebilen gauza arraroak gertatzen hasi diren arte" txioarekin hasi zen istorioak erakutsi du ze potentzial duten sare sozialek narratiba transmediarako.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria



Nobela bat? Ez, beste zerbait da. Autofikzioa akaso, baina ez orain arte eza gutzen genuen bezalakoa. Genero horren baliabideak erabili ditu Manuel Bartualek zenbait egunez publikatu duen txio-hari batean, baina paperean inprimatutako narratiban ez bezala, zuzeneko kontakizun bat bihurtuta aurkeztu zaigu. Eta egileak ederki probestu du bat-batekotasunak ematen duen aukera suspentsea sortzeko. Momentuan jarraitzeak eragin die segur aski istorioaren Twitterreko milaka jarraitzaileei irakurle gisa izan duten zirrararen zati handi bat: denbora narratiboa pantailen garaira egokitzen ikusi dugu eta horrek eragin duen jakin-mina ez da nolanahikoa izan –ehunka mila jarraitzaile lortu ditu komikilariak egun gutxitan–.

Askok teorizatu izan da Twitterrek sormenerako eskaintzen dituen aukeren inguruan. Ohituta gaude fikziozko pertsonaiekin hitz egiten sareetan, egile ezezaguna duten xomorro digitalek iri-

tzi publikoan eragiteko gaitasuna dutela ere erakutsi dute –gai horri buruzko *Larrun* bat publikatu genuen duela pare bat urte–. Manuel Bartualen kasuan ordea, honakoa da diferentea ohiko trollen aldean: orain arte bere kontua ez duela fikziorako erabili, ez du bere burua pertsonaia gisa aurkeztu –ez behintzat gai nontzeko erabiltzaileok baino gehiago–; eta beraz, opor arraroek buruzko haria abiatu eta gauza benetan sinesgaitzak gertatzen hasi ziren arte, askok ez zuten ulertu ariketa narratibo bat zeukatela pantailan.

Twitterren erregistro arrunta apurtze horrek problemak ere badauzka, Bartualek haria amaitu duenean esplikatutako behar izan baitu dena berak asmatutako istorio bat zela. Irakurketa-gaitasun diferenteak dauzkaten pertsonak daude sare sozialetan, tartean txio bakoitzari "INVENT" erantzuten ziotenak, fikzioa eta errealtatea modu argian desberdintzeko premia sentitzen zutelako agian –gogoeta tonto bat: ez al da paradoxikoa

hori gertatzea non eta Espainian, zenbait komunikabideren albisteak maiz surrealismotik gertu aritzen diren herrialdean?–.

Beste gauza bat ere agerian utzi du Bartualek: testu pixka batekin, bideo eta argazki sinple batzuekin, publiko masiboa harrapatuko duten istorioak kontatu daitezke. Narrazio transmedia baten aurrean gaude, Jorge Carrión idazleak esplikatutako moduan, *The Blair Witch Project* filmarekin konpara litekeena baliabideen ekonomiari eta arrakastari dagokionez –"munstro arraro hori esnatu du, sinkronia kolektiboa, biraltasunaren dimentsio kulturala"–.

Baina pelikula hura aretoetan ikusi genuen eta ez zen hain erraza istorioaren erreplikak sortzea, ezin zenuen harekin interakziorik eduki. Txio-hari batekin bai. Eta publikoak hori aprobetxatu du *fan fiction* paraleloak sortzeko, istorioa martxan zegoen bitartean.

Oraindik gauza asko ikusteko gaude fikzio biralaren eremuan. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hezurrak eta gezurrak iraganaren uretan



Amaia Serrano Mariezkurrena

Zulo bat uretan egitea ezinezkoa dela pentsa lezake batek, baina Iñigo Aranbarrik lortu zuen liburu honekin, eta ederki lortu ere. Hasierak bete-bete harrapatzen du irakurlea, narrazio handien gainbeherarekin lot daitekeen gertaera batekin: kapitain nazi batek bere buruaz beste egiten du Buenos Airesko hotel batean. Hortik denbora-espazio ezberdinetan kokatzen diren zenbait narrazio hedatzen dira.

Itoizko urtegia betetzeko herriak (are hilerriak) husten hasi ziren garaian kokatzen da hari nagusia, 2003an. Urak historia estali aurretik, ordea, iragana azaleratzeko azken ahaleginean dabilen hirukotea dakusagu. Maite antropologo-forentseak du gorpuak hilerritik ateratzeko ardura, eta lan horretan inplikaturik ditu Imanol kazetaria eta Oscar laguntzaile argentinarra. Emakumezkoak du indar zentripetua, baina narratzaile eginkizuna bi gizonezkoen baino ez zaie ematen. Hala, Oscarren aitona marinelen istorioak eta Juana nafar gorriaren heriotza-moduak gatibatuta, bidaia historiko-literario bat eraikitzen du Imanolek: Hitlerren itsasgizonena eta 40ko hamarkadan Nafarroan eraildako emakumearena. Halere, oroitzapenak biltzeko elkarriketaren batean Imanolen kazetari senak irrist egiten duela dirudi, eta bere jarrera xaloak sinesgarritasunari kalte egin diezaioke. Oscarrek, aldiz, Argentinako diktadura dakar berekin, jazarpenaren minak eta oroimen-asmazioek osaturiko errelatoan.


Iraganaren zama daramate Imanolek eta Oscarrek. Galtzaileak dira, galtzaileen istorioak berreraikitzen. Historia be-

Zulo bat uretan

IÑIGO ARANBARRI

Susa, 2008

Iñigo Aranbarri Alberdi idazlea
(Azkoitia, 1963).



rridazteko ahaleginean sortzen diren arazoen erakusten dute zenbateraino den hura zeregin konplexua. Asmo horretan, Oscarrek iraganak egia izan zela erakusten duen zalantza jarriko du.

Oroitzapenak eta hausnarketak bidea urratuz doaz eleberrian, ura nola. Pertsonaien gogotok ezagutu ahala, haien alderdi makurrak agertuko dira, baita bestelako arazo sozialak, historikoak eta familiarak ere. Gazi hori, baina, Aranbarriren prosaren gozoak orekatzen du. Ez soilik euskararen erabilera bikainagatik, narrazio osoan zehar ematen diren erreferentzia artistikoen eta oroitzapenen arteko lotura semantikoek borobiltzen dute obra hau.

Testuinguru ilun horretan, egia ezkutatu nahiak eraginda, norbaitek Imanoli bere *Mont Blanca* lapurtzen dio, idazteari uzteko gonbit moduan. Alabaina, kazetariak, historiagileak zein literatura sortzaileak armarik badu, hori bolaluma da. Bestela, galde diezaiotela hamaika pausotan azkena eman duen Iñaki Abaituari. ■

» DISKOA

Gupidarik gabe



Joxi Ubeda

Azpeitiko Karkaba taldearen errautsetatik jaio den hirukotea da Gaitze. Karkabaren jarraipena dela esan daiteke; ideia horretan sakondu eta muturrera eraman dute, bai doinueta eta erritmoetan, bai mezuetan.

Aurtengo apirilean kaleratu dute diskoa, beren lehen lan luzea. Bederatzi kanta daude, minutu eta erdi inguruko bederatzi muturreko, eta disko osoa arin eta berehala entzuten da. Ziztu bizian jotako punk-hardcore kanta gordinak dira, 80ko hamarkadan egiten zirenen kutsukoak. Erritmo aldaketak eta mozketak egiten dituzte, eta hainbat kantutan mantsokoak diren zatiak ere jotzen dituzte. Soinu trinkoa gauzatu dute, eta energia handiarekin aritzen dira, zuzen eta zehatz.

Haserrea eta amorrua transmititzen dute, erraieratik ateratzen zaizkien bi ahots urratu- ren bidez, oldarkor, bortitz eta batere gupidarik gabe. “Kateak apurtu, askatasuna” (*Hi heu haiz*) aldarrikatzen dute, eta “diruzale burges madarikatuak” (*Dirua*), “arimarik gabeko gizagalduak, gure miseriek aberasten zaituzte” (*Bizi nahi dut*), “gure ondasun plantxatuak hondakin bilakatuak” (*Kaosa eta zaborra*), “bake mundiala, bake soziala gerra guztien ama da” (*Terrorismoa*) eta jendarte honetako beste zenbait gaitz, faltsukeria, ustelkeria eta bidegabekeria dituzte hizpide, armak, gerrak, botere gosea, kartzelak, zapalkuntza, faxismoa...

80ko hamarkadan punk eta hardcore talde ugarik egiten zuten bezala, diskoa osatzeko *do it yourself* (zuk zeuk egin ezazu) filosofiarekin

Gaitze

GAITZE

Discos Enfermos,
2017

aritu dira, eta beren kabuz egin dute maketazioa –azala, kontrazala, CDaren galletak eta hitzak biltzen dituen orria–, eskuz, txantiloiekin eta sprayekin. Azken batean, Gaitzeren diskoa artisautza lan bat da, harribitxi bat, gaur egun, horrelako oso lan gutxi ikusten baitira.

Diskoan bezala, jendaurreko emanaldietan ikus-entzuleei arnasa hartzeko astirik utzi gabe jotzen dute, txantxarik gabe, izugarrizko grina, indar eta kemenarekin, kantuak bata bestearen atzetik segidan jotzen, eta haien saioak ikaragarriak dira, aho zabalik uzteko modukoak. ■

Gaitze taldea
jendaurreko
emanaldi
batean.



IRAILAK
20-24
INTXAURRONDO

**KARPA
ERRALDOIA**

· Taloak
· Pantumaka
· Butifarra
· Buyols
· Kroketak
· Garagardo
· artisaua

· Hitzaldiak
· Kantaldiak
· Kontzertuak

as CAT asu nera

M. Lujanbio eta J. Maia **FELIU VENTURA** Cul de sac **M. OTAMENDI** Diablos **M. TERRIBAS**
ERC ANC M. Garitano **GARAGARDO ARTISAUA** Porrotx **GLOSADOREAK** D. Fernandez
GATIBU STROMBERS ZOO

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

AZPIKO, MENDEKO ERTZ, BAZTER		PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA TXUKUNA		HUTSUNE BAT ZEHARO HARTU		PARE BAT GURTZEA		BELDUR BIZI BARAZKI HOSTOTSUA		KAUSA ERAKARPEN INDAR		LUTEROTAR HIZKUNTZA TURKIARRA
				ZERBAIT EGIA DELA FROGATU IKUSI (LA- BURDURA)								
SARTU EROKERIA						ZURRUTADA BAT ERROMATAR ZENBAKIZ						
								ITXURA ... EGIN, ERA- BAT ASE				
IBAIAETAKO PASABIDE	BROMOAREN SINBOLOA ZODIAKOKO KONSTELA- ZIOA									KRIPTO- NAREN SINBOLOA GIPUZKOAKO HERRIA		
			TXIRRIN					FERIA, AZOKA PERTSO- NAIAREN IZENA				
PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ) EME EZ DENA												
		IODOA NORBAIT						LEHOIAREN OIHU OZEN ZUREZKO JOSTAILUA				
ETORRI IA EZIN MIN- BERATUZKOA				OINARRIZKO EDARI AURRIZKI EKOLOGISTA	MUSIKA ESTILOA EMAKUME IZENA	AZKEN LETRA ARDI HITZ- ELKARKETAN		BIZKAIKO HERRIA ... GABE, GELDITU GABE				ZIZARE
										HIDROGENOA HERRI HIZKE- RAN, ZER		
ZEINEK KAREZ ERATUTAKO ORE					PERTSO- NAIAREN ABIZENA ROENTGEN							
							LANTEGI					

Sudokua


Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	9			5		1		
8					3		4	6
7	6						5	3
1			3	8				
			7		2			
				6	4			1
9	1						6	7
6	3		1					9
		8		4			1	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Kafetegia.
2. Gaztagintzako zurezko ontzi.
3. Komunikabide mota (pl).
4. Fasea.
5. Bizkor.




Ebazpenak

5. Azkar.
3. Faxak. 4. Elapa.
1. Kafeta. 2. Abatz.

K	A	R	E	O	R	E	T	A	I	L	E	R
N	O	R	K	N	A	R	B	A	I	Z	A	
M	I	N	B	E	R	A	K	A	I	T	Z	H
J	I	N	U	S	Z	E	V					
A	R	I										
I	A	T										
I	B	I										
B	B	R										
Z	O	R	A	K	E	R	I	A	V	A		
K	A	B	I	T	U	Z	U	R	I			
H	E	G	I	E	G	I	A	Z	T	A	U	
P	E	B	B	I	K	I	B	I	K		L	

Adrian Odriozola. Genetika, kirola eta ikerkuntza



Dopin genetikoaren eskuliburua

"Bi teknika daude, *in vivo* eta *ex vivo*. *In vivo* zuzenean birusak sartzea datza, zuk nahi duzun errezetarekin. *Ex vivo* aldiz, zelulak atera, eraldatu, laborategian hazi eta berriz ere gorputzean sartzeari esaten zaio. EPOaren genea aldatu daiteke; miostatina ere bai, gihardura handitzeko; PPAR edo PPFK geneak aldatu ditzakegu erresistentzia handitzeko, edo minaren pertzepzioa gutxitzeko. Txirrindularitzan esaterako, nork irabazten du? Erresistentzia handiena duenak ala mina hoberen jasaten duenak?"

WADA (World Antidoping Agency) erakundearen arabera, 2008tik erabiltzen da dopin genetikoa. Baina oraindik ez da kasu bat bera ere ezagutu. Ez baitago detektatzeko modurik. Adrian Odriozola EHUko genetika irakasleak eta bere kideek, diru faltagatik, bertan behera utzi behar izan zuten detekzio sistema aurkitzeko abian zuten ikerketa. Hala ere, kirola eta genetika uztartzen segitzen du Odriozolak berak sortutako KirolDNA enpresan.

"Dopin genetikoa negozio ikaragarria izan liteke batzuentzat"



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Oier Aranzabal

@oaranzabal

Zenbat dugu genetikotik eta zenbat bestela?

Ezaugarri bakoitzaren arabera, portzentaje bat da genetika eta portzentaje bat da ingurua. Esan genezake %30-80 bitartean izan ohi dela genetikoa.

Egia da laborategi batean diseinatu daitekeela atleta perfektua?

Ez, zehazki. Genetikaren esparrutik, gure errezeta liburuan gordetzen dugu informazioa. Esan bezala, portzentaje handi batean nolakoak garen definitzen du liburu horrek. Gaur egun gai gara liburu hori nahieran editatzeko. Baina liburu hori, parte batean, guretzat Matrix bezala da, kodifikatua dago eta ez dakigu aldaketek zer eragin dezaket. Hartu dezagun eritropoietina (EPO) sortzeko prozesuan eragiten duen genearen kasua; saguetan eta tximuetan ikusi da genea bikoiztu daitekeela, eritropoietina gehiago sortzeko.

Alegia, gene bat aldatuta, definitu daiteke gorputzak zenbat EPO sortuko duen?

Hori da. Errezetara joan gaitzen berriz. Zuk patata tortillaren errezeta bat duzu, baina genea bikoizten baduzu, patata tortilla bikoitza sortuko duzu. Edo errezeta horren ondoan seinale bat duzu, adierazten duena zenbat tortilla egingo diren. Bat jartzen zuen lekuan bi jarritz gero, bi tortilla egingo dituzu. Liburu hori interpretatzen ikasten ari gara gutxika. Geroz eta gehiago dakigu. Bi kontu ezberdin dira, batetik liburua editatzeko gai izatea eta, bestetik, berau interpretatzeko gaitasuna izatea.

Baina nola editatu pertsona baten liburua?


Bektore birikoak erabiltzen dira. Birusak duela 5.000 milioi urtetik diseinatu daude zelulara joan eta beren material genetikoa sartzeko.

Birusak "jaurtitzaile" gisa erabiltzen dira?

Bai, baina lehenengo zati patogenoa edo kaltegarria kenduta. Haren orde zuri interesatzen zaizun sekuentzia sartzen badiozu, birusak ibilgailu lana egiten du zelularaino, hura genetikoki eraldatzeko.

Teknika horrekin paziente baten begien kolorea aldatu dezakezue?

Bai, teoriarik bai, hori baldintzatzen duen genea zein den zehazki jakinda.



“Gaixotasun gehien arrazoia akats genetiko bat izan ohi da. Hori aldatzeko gai bagara, gaur egun sendaezinak diren gaixotasun asko sendatu ahal izango ditugu. Teknikak merkatuz gero, pertsona bakoitzarentzat farmako bat lortuko dugu.”

Zer eragin negatibo izan ditzake horrek?

Bada, horrela hitz eginda sinplea badi-rudi ere, oso konplexua da, errezetak elkarren artean komunikatuta baitaude. Eta zaila da jakitea aldaketa batek zer ondorio izan dezakeen. Eragin batzuk ikusten ditugu, baina ezin da jakin oraindik beste albo-aldaketa batzuk eragin ditzakegun ala ez. Mutazioak sortzeko arriskua ere hor dago.

Terapia genikoaz ari gara, ezta?

Bai. Gaur egun teknika horiek hainbat gaixotasun sendatzeko erabiltzen dira. Nik dakidala, sei farmako gutxienez badaude egun, teknika horietan oinarritzen direnak. Milaka ikerketa daude eta teknikak asko ari gara garatzen, osasungintzan oso interesgarriak direlako.

Kiroltako dopinerako ere bai.

Betikoa da. Atal zehatz batzuk aldatuta, jakin badakigu kirol errendimendua ikaragarri hobetu daitekeela. Indarrean, erresistentzian edo minarekiko daukagun sentikortasunean esaterako.

Auto bat tuneatzea edo geure gorputza hackeatzea bezala da?

Horixe bera. Ihes hodia aldatu duzu eta pixka bat azkarrago doa autoa, baina, zenbat soinu eragiten du? Zenbat gasolina behar du orain? Niri alde ona azpimarratzea gustatzen zait, ikaragarria delako.

Eta zein da honen guztiaren alde ona?

Alde ona da gaixotasun gehien arrazoia akats genetiko bat izan ohi dela. Gaixotasun horien sorburua, askotan, errezeta liburuko hizki soil batean dago. Hori aldatzeko gai bagara, gaur egun sendaezinak diren gaixotasun asko sendatu ahal izango ditugu. Teknika hauek garatu eta merkatuz gero –orain milioika euro balio dute– pertsona bakoitzarentzako farmako bat lortuko dugu. Badira haur asko gaixotasun genetiko oso arraroekin jaiotzen direnak, eta gaur-gaurkoz ez dago aukerarik bakoitzarentzat farmako bat sortzeko. Farmazeutikei ez zaielako interesatzen, besteak beste.

Gaur egun ba al da kirolari transgenorik?

Ezin dugu jakin, ez baitugu tresnarik dopin genetikoak detektatzeko. Jakina da ordea, teknikoki posible dela egitea. WADAK (World Antidoping Agency) esaten du 2008tik, Beijingko Joko Olinpikoetatik, dopin genetikoak aplikatzen dela. Horregatik inbertitu ditu milioi dolar asko haren ikerkuntzan.

Rioko Joko Olinpikoetan zer edo zer egi-ten hasi ziren dopin genetikoaren aurka.

Detekzio motaren batekin hasi ziren, baina azkenean atzera egin zuten. Ez baitzen behar bezain fidagarria. Laginak, aitzitik, gorde egin zituzten etorkizunean ikertu ahal izateko.

Dopin genetikoak garestia da?

Bai, baina ekonomikoki negozio ikaragarria izan liteke batzuentzat. Terapia genikoan, horrelako farmako bat garatu eta pertsona bakoitzarentzat aplikatu ahal izateko, 2-6 milioi euro behar dira. Hori merkatu daitekeen? Ba agian, prozesu ilegal batean, fase batzuk kenduz gero bai. Hori bai, komertzializatuz inbertitutakoa baino diru gehiago irabaziko dute ziur. Oso iluna da dopinaren mundua, iluna bezain errentagarria batzuentzat. ■



FARCen bidetik, kirol talde bihurtzea erabaki du ETak

Izena aldatzeaz bate-ra futbol taldea sortuko duela iragarri du FARC gerrilla ohiak, eta horrek inbidia sortu du nonbait. “Kolonbiako bake prozesu eredugarriaren ispi-luari begira, lan ildo berria irekitzea deliberatu dugu: kirola”, dio ETak Beranduegiri eskusiban igorritako agirian.

Lehenbiziko neurria izena aldatzea izan da, baina siglak mantenduz, FARCEk egin bezala: “Euskadi Ta Aerobika izango gara aurrerantzean”. Euskadiren partez, Aberria jartzea aztertu dute baina siglekin ez dira pozik geratu. ETak ez dio aterik itxiko kirol mota bakar bati ere, salbu eta jaurtiketa bidez-koei, “errezelarik egon ez dadin”. Arrazoi beragatik, talde kirolean uko egingo diote erasoko jokoari, “Athleticek bezala hain justu”.



Lehen entrenamenduetan ETaren defentsa gogorra nabarmendu dute ForoCocheseko kirol adituek.

Diotenez, hasi dira lehen entrenamenduak egiten. “Leher-leher eginda amaitzen ditugu saioak”, adierazi du erakundeko kide batek, kaputxa azpian arnastetuta oraindik.

SAREAN ARRANTZATUA

Espainian lana topatzea ezinezkoa da



Nahi ez duzuna jateko leku aparta



Lilian Tintorik dio atzemandako dirua Anasagastiri peluka bat pagatzeko zela

Venezuelako Gobernuaren aurkari eza-guna 200 milioi bolivar aldean zituela gelditu zuen poliziak, baina lehen momentutik ukatu du diru horrekin legez kanpoko ezer ordaindu nahi zuenik. Eztul pixka batekin zebilen amonari zi-ropa erosteko behar zuela esan zuen lehenbizi, gero esan zuen nahiago duela cash asko eduki eskura, kutxazain auto-matikoaren billeteen zirrikituak gogora

ekartzen diolako Maduroren bibotea; eta joan den igandean berriz, dirua ume pobreen artean banatzeko zela. Nolanahi, aste honetan Beranduegiren ikerketa sailak eskuratu dituen frogen arabera, Tintorik beste asmo bat zeukan: Iñaki Anasagastiri peluka on bat erostea. “On-ona nahi zuen, Ibon Sarasolaren kalparraren material



Mariano Rajoyrekin izan zuen bilerara argudioz beteta agertu zen Tintori.

berarekin egina”, azaldu dute peluka egi-teko enkargua jaso duten dendan. “Eta klaro, gauza hauek ondo pagatzen dira”.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



STM

San Telmo Museoa

Erakusketa:

Telefonica

FUNDACIÓN

HITCHCOCK

Hitchcock, suspensetik harago

2017-6-16 // 2017-10-1

Erakusketa

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza 1, 20003 Donostia

#STMhitchcock

www.santelmomuseoa.eus

AZKEN EGUNAK

DC
donostia
kultura


DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKAL GOBIERNUA
GOVERNAMENTO DE GATIA
Y GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamentu de Kultur,
Turismo, Jantzeri eta Ospitale



 ORAJN
KULTURA

 eitb

 kutxa

 EL DIARIO VASCO